EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

## 1993ko Azterketak

361(079.1)

41
Euskara Zerbitzua
Glotodidaktika-lanak

eibZa
Katalogoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20 27.48
20600 EIBAR

# IRAKASLEEN
# HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK
## 1993KO AZTERKETAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1994

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 1994eko urtarrilekoa |
| Ale-kopurua: | 3.000 |
| © | Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Wellintongo dukearen kalea 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa: | Didot, S.A.<br>Nerbioi kalea, 3 - 48001 Bilbo |
| Inprimaketa: | Gráficas Santamaria, S.A.<br>Bekolarra, 4 - 01010 - Vitoria-Gasteiz |
| ISBN: | 84-457-0379-X |
| L.G.: | VI-8-94 |

# AURKIBIDEA


HITZAURREA ........ 7

I. 1993ko LEHEN DEIALDIA ........ 9

I.1. HE2ko azterketa-eredu bat ........ 11
I.2. Zenbait ariketaren aldaerak ........ 43

II. 1993ko BIGARREN DEIALDIA ........ 51

II.1. HE2ko azterketa-eredu bat ........ 53
II.2. Zenbait ariketaren aldaerak ........ 85

III. AHOZKO AZTERKETAK ........ 91

III.1. HE1eko ahozko azterketak ........ 93
III.2. HE2ko ahozko azterketak ........ 97

IV. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK ........ 101

IV.1. HE1eko idatzirako neurpideak ........ 103
IV.2. HE2ko idatzirako neurpideak ........ 109
IV.3. HE1eko ahozkorako neurpideak ........ 115
IV.4. HE2ko ahozkorako neurpideak ........ 119

V. ERANTZUNAK ........ 125

V.1. Lehen deialdiko erantzunak ........ 127
V.2. Bigarren deialdiko erantzunak ........ 129

VI. ERASKINA ........ 131

Lege-oinarria ........ 133

# HITZAURREA

Euskara edo euskaraz irakasteko, kasuan kasuko titulazio akademikoaz gainera euskara-maila jakina eskatu izan die maisu-maistrei, aspaldiko urteotan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak: Eskolaurre edo OHO mailakoei EGA agiria edo baliokidea; Irakasmaila Ertainetakoei, horrezaz gainera, EIT. IGA aitormenak, aldi baterako balio-indarrez, EGAren pareko onarpena izana du bestalde.

Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu denetik, eta han esandakoa garatuz, irakaskuntza publikoan diharduten irakasleei (hemendik aurrera euskara edo euskaraz irakastekoak direnei) bigarren mailako hizkuntz eskakizuna (HE2 alegia) eskatuko zaie; erdaraz irakatsiko duen hainbati, bestalde, lehen mailako hizkuntz eskakizuna (HE1) eskatuko zaio. EGA agiria 1993ko apirilaren 2a baino lehenagotik duten herri-ikastetxeetako irakasleek ez daukate HE2 atera beharrik: lehendik duten agiriak berdin balio die. Fetxa hori baino lehen IGA edo GUMA lortu zuten herri-ikastetxeetako irakasleek ere badute, baliokidetasunei dagokienez, HE1en pareko gaitasun-baliorik. Hemendik aurrerakoetan (1993ko apirilaren 2tik aurrera alegia) jarri dira, beraz, HE1 eta HE2 indarrean. Herri-ikastetxeetan bakarrik egin da, gainera, berrikuntza hori.

Berrikuntzok direla medio, HE1 eta HE2 egiaztatzeko azterketak eratu dira aurten, lehenengo aldiz. Bi deialdi egin dira horretarako: ekain-uztailetakoa lehenengoa, eta urri-azaroetakoa bigarrena. Milaka irakaslek eman zuen bertan parte hartzeko izena. Eta, denak azterketara aurkeztu izan ez badira ere, kopuru zabala osatu dute azterketaren idatzizko zatia behintzat egindakoek. Gutxiago izan dira, bistako arrazoiengatik, ahozko azterzatia egindakoak.

Martxoaren 9ko 47/1993 dekretuak, apirilaren 2ko EHAAn argitaratuak, finkatu ditu esan bezala herri-ikastetxeetako irakasleen hizkuntz eskakizunak eta irakaspostuetarako derrigortasunak zehazteko irizpideak; liburu honen amaieran datorkizu, eraskin moduan, arauzko erabaki horien zenbait atal. HE1ek eta HE2k zer euskara-maila eskatzen duten jakin nahi duenek arretaz irakur bitza dekretu horren 2., 3.,

4. eta 5. atalak. Dekretu horren garapen gisa, maiatzaren 11ko aginduz arautu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak hizkuntz eskakizunak 1993an egiaztatzeko azterketa: ekainaren 17ko EHAAn eman zen agindu hori argitara. Horrekin batera, eta agindu horren 8. atalak zioenaren ildotik, Epaimahai Nagusia eratu zen batetik eta, bestetik, ebaluazio-batzorde bana izendatu zen Lurralde bakoitzean. Hezkuntza sailburuordearen maiatzaren 26ko erabakiz (EHAA, 1993-VI-18) egin ziren izendapen horiek.

Horiek izan dira beraz, arauzko erabakiei dagokienez, 1993ko hizkuntz eskakizunen iturburuak. Oro har, eta antolamendu aldetiko epe-mugak kontuan izanik, aski era zuzenean erantzun zaie begiz jotako xedeei: azterketa-egunak noiz eta non, tarte-notak eta azken emaitzak noiz, eta abar.

Lehenengo azterketak izan dira, bistan denez, irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko hauek: lehenengoak edukinez, berariazko formulazioa eman baitzaie HE1 eta HE2 agiriei eta haiek eskuratzeko azterketei; eta lehenengoak antolamenduz, esan bezala lehenengo azterketaldia izan baita aurtengoa. Aurrekoak ez bezalakoa izate honek, Hezkuntza Sailaren asmoan, halako behin-behinekotasuna ere badakar berekin: aurtengo azterketen osaera eta gai-eraketa, denbora-iraupena eta jardupidea ez dira beraz, ezinbestean, aldaezinak. Aitzitik, Hezkuntza Saila aurtengo jardupidearen berariazko azterketa egiten ari da, zer den bere horretan egoki eta zer hobekizun aztertzeko. Datorren urtetik aurrera deialdi itxiak, IRALEko txanda-amaieran bertako ikasketariei zuzenduak, egiteko asmoa du, gainera, Hezkuntza Sailak: hartarako jardupidea, adibidez, arauzko erabakiz jakinarazteko asmoa du berandu baino lehen.

Bere behin-behinekotasuna eta guzti baliagarri gertatuko zaizkio 1993ko azterketa-materialok, hala uste da behintzat, horren eskean agertu diren irakasle, azterketari, euskaltegi eta gainerakoei. Han-hemen maiz entzun den eske horri erantzun nahirik argitaratzen da, hain zuzen, aurtengo azterketen liburukia.

Erraz konturatuko zarenez, bi atal nagusi ditu argitalpen honek:

a) *1993ko azterketa-materialak:* AAG (aukera anitzeko galdekizun) probak datoz bertan, alde batetik. Eta, bestetik, idatzizko azterzati guztien bilduma: bi HE1ekoa eta bai HE2koa, bai ekainekoa eta bai urrikoa. Ahozko azterketarako irakurgaien eta gainerako lagungarrien lagin zabal bat ere bertan erantsi da, erabilitako erreferentzien erakusgarri. Berariazko batzorde batek prestaturiko lehengai batzuen gain eratu zituen, Epaimahai Nagusiak, azterketa-materialok.

*b) Neurketarako irizpideen dokumentazioa.* Neurketarako Epaimahai Nagusiak aldez aurretik eztabaidatu, landu eta, Ebaluazio-batzorde guztien iritzia jaso ondoren, finkatutako neurpideak dituzu atal honetan eskaintzen zaizkizunak.

Atal biok ez dute, halere, liburukiaren edukin osoa agortzen. Eraskin moduan, goian aipaturiko dekretu-atalak eskaintzen zaizkizu izan ere..

Hori duzu beraz, irakurle, eskuartean duzun liburukiaren jatorria, osaera eta xedea. Lagungarri gertatuko zaizun asmoan prestatu du Sailak, eta pozik dizu eskuratzen.

M. ANTONIA OZKARIZ
*Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria*

# I. 1993ko LEHEN DEIALDIA

Oharrak:

[1] Lehen deialdi honetan idatzizko azterketa guztia batera egin zen. Gero, bigarren deialdian, aldaketa izan zen eta bi zatitan egin zen: lehenik Aukera Anitzeko Galderak (AAG) eta aparte Idazlan-atala.

[2] Idatzizko zati honetan HE2ko azterketak eskaintzen dira soilik, HE1eko ariketa guztiak bertan sartzen baitira.

## I.1. HE2ko AZTERKETA-EREDU BAT

❑

**IRAKASLEENTZAKO HIZKUNTZA-**
**-ESKAKIZUNAK**

**HE2**

**IDATZIZKO AZTERKETALDIA**

1993ko ekainaren 26a

*Azterketa-eredua:* **E**

### IRAKURRI OHAR HAUEK

1. Liburuska honetatik atera suelto dagoen erantzun-orria.
2. Konprobatu azterketa honek 33 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. **Idatzi segidan zure datuak:**

| | |
|---|---|
| *1. deitura:* ........................................ | *2. deitura:* ........................................ |
| *Izena:* ........................................ | *NAN:* ☐☐☐☐☐☐☐☐ |
| *Herria:* ...................... *Lekua:* .................... | *Gela:* .............. *Txanda:* ........... |

4. Erantzuten hasi aurretik, bete aparteko erantzun-orriaren B atala eta irakurri liburuska honen 2. orria.
5. Azterketaldiaren lehenengo orduan eta azkenekoan izan ezik, komunera joan zaitezke.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Gelan ezin da erre.
8. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.

ERANTZUTEN HASI AURRETIK, IRAKURRI OHAR HAUEK

**Bigarren Hizkuntz Eskakizunera (edo bietara) aurkezten bazara:**

Hiru ordu t'erdi duzu idatzizko azterketa hau burutzeko.
Lehen orduan, aukera anitzeko galdekizunari erantzun behar diozu.
Hurrengo bi ordu t'erdietan, liburuska honetako beste ariketa guztiak egin behar dituzu.

## 1. AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA (HE1 eta HE2)

a) Ordubete duzu galdekizun honi erantzuteko; gero, erantzun-orria jaso egingo da.
b) Galdera bakoitzean erantzun **egokia** aukeratu eta erantzun-orrian lapitzez markatu.
c) Konturatu, batzuetan galdera **ezezkoa** dela.
d) Galdera bakoitzeko erantzun **bakarra** onartuko da.
e) Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
f) Guztira 100 galdera dira. Galdera bakoitzak puntu bat balio du.
g) 65 puntu behar duzu ariketa hau gainditzeko.
h) Ariketa hau baztertzailea da: hau gainditu gabe ezin da hizkuntz eskakizuna lortu.

1. *Egun hartan zure atzetik...*

*a) netorren.*
*b) etortzen nintzen.*
*c) nentorren.*
*d) etortzen ari nintzen.*

2. *Zein dago* **txarto**?

a) Iaz ospatutzeko jaialdia aurten ezingo da berritu.
b) Iaz ospatu zen jaialdia aurten ezingo da berritu.
c) Iaz ospaturiko jaialdia aurten ezingo da berritu.
d) Iaz ospatutako jaialdia aurten ezingo da berritu.

3. *Ume ..... ez zaie ingelesez hitz egitea gustatzen.*

a) horri
b) horrei
c) hoiei
d) horiei

4. Zein dago **gaizki**?

a) Egunero fruta jaten dut.
b) Egunero fruta jan behar dut.
c) Egunero fruta jan beharko dut.
d) Egunero fruta jaten behar dut.

5. *Gauzak ondo ..... komeni da.*

a) egin
b) egiten
c) egitera
d) egitea

6. *Andoniri, gaixorik dagoenez, etxeko lanak Mirenek...*

a) darkarzkiote.
b) dakarzkio.
c) dakar.
d) dakarkio.

7. Zein da zuzena?

a) Anoetako leihatilan zera irakurri dut: Sarrera doainik.
b) Anoetako lehiatilan zera irakurri dut: Sarrera dohainik.
c) Anoetako leihatilan zera irakurri dut: Sarrera doahinik.
d) Anoetako leihatilan zera irakurri dut: Sarrera dohainik.

8. **Zein ez** da baliokidea?

a) Azken ariketa ez egitearren, aprobatuko dut.
b) Azken ariketa egin ez badut ere, aprobatuko dut.
c) Nahiz eta azken ariketa egin ez, aprobatuko dut.
d) Azken ariketa egin ez arren, aprobatuko dut.

9. *Zenbait erabaki ..... dena konpon dezake.*

a) egoki
b) egokik
c) egokiek
d) egokiak

10. Ikasleei iladan jartzeko esaten diezunean, **zer ez** diezu esaten?

a) Jarri elkarren zerrendan.
b) Jarri elkarren ondoren.
c) Jarri elkarren segidan.
d) Jarri bata bestearen atzean.

11. ***Korrikak** euskararen lekukoa Euskal Herriko bazter ..... eraman du.*

a) guztiotarako
b) guztitara
c) guztirako
d) guztietara

12. *Etxera ekarri zidaten zeramika ..... babestuta zetorren.*

a) egurrengatik
b) egurrez
c) egurragatik
d) egurrezko

13. *Joan den astean ..... Erromatik.*

a) etorri zen
b) etorri ohi zen
c) zetorren
d) etortzen zen

14. Zein dago ondo?

a) Zineman elkar ikusiko zaigu.
b) Zineman elkar ikusiko diogu.
c) Zineman elkar ikusiko gara.
d) Zineman elkar ikusiko dugu.

15. *Pozik ..... zuek etorri arte.*

a) zenbiltzaten
b) genbilen
c) genbilzkien
d) genbiltzan

16. *Atzo ..... huts egin genuen autobusa.*

a) zortzietako
b) zortzietarako
c) zortzitan
d) zortzietan

17. *Telebistari kasu gutxiago egingo ..... , mendiari atsegin handiagoa hartuko...*

| | |
|---|---|
| a) bagenitu | genizkieke. |
| b) bagenio | genioke. |
| c) bagenu | genieke. |
| d) bagenu | genizkioke. |

18. *Asterixen eta Obelixen erasoaren ondorioz piratek itsasontzia...*

a) urperatu zioten.
b) urperatu zen.
c) urperatu zuten.
d) urperatu zuen.

19. *Garaiz etorri ..... ez duzu afalduko.*

a) ahala
b) berriz
c) ezik
d) ezezik

20. Zein dago ondo?

a) Goiz irits ezazu esan dizu.
b) Goiz iristea esan dizu.
c) Goiz iristeko esan dizu.
d) Goiz irits dezazun esan dizu.

21. *Lekeitioko ..... bainu-toki ederra da.*

a) geltokia
b) plaza
c) antzokia
d) hondartza

22. *Zoaz pikutara!* Zer esan nahi du esaldi horrek?

a) Alde hemendik!
b) Hoa pikupera!
c) Egon hadi horretan!
d) Alde ederra dago!

23. *Gezur galant hori irakasleak ..... esan digu.*

a) bera
b) hark
c) berak
d) hura

24. *Zer-nolakoak izan dira eman dizkizuten opariak?*

a) Zureak bezalakoak.
b) Zu bezalako.
c) Zureak bezala.
d) Zure bezalakoak.

25. *Etorri dela uste dut.* Aukera ezazu esaldi horren parekoa.

a) Etorri dela nago.
b) Etorri delako nago.
c) Etorri delakoaren nago.
d) Etorri delakoan nago.

26. Lau esaldiotatik zein erabiliko zenuke ariketak ondo egin dituen ikasleari zorionak emateko?

a) Atsegin handienaz eskertzen dizut.
b) Pozaren pozez naukazu!
c) Portatu zara!
d) Har ezazu nere zorion-agurra!

27. *Erantzun hori eman ..... zigorra ezarriko zaio.*

a) duenari
b) dutenari
c) dueni
d) duenei

28. Zein dago **txarto**?
*Aurtengo saria irabazteko, lana egokitu...*

a) beharko dugu.
b) behar izan dugu.
c) behar izango dugu.
d) behar izaten dugu.

29. *Amak oraindik ..... nauka.*

a) umetzat
b) umeatzat
c) umea bezala
d) umekotzat

30. *Etorriko da hurrean!* Zer esan nahi du?

a) Urritzak ekarriko dituela.
b) Laster etorriko dela.
c) Beharbada etorriko dela.
d) Urteko 10. hilabetean etorriko dela.

31. Zein dago **txarto**?
*Nik ..... egingo ditut gauzak.*

a) zure bezala
b) zure gisa
c) zure erara
d) zure modura

32. *Patatak zurituko ..... , gaur tortila afalduko...*

| | |
|---|---|
| a) bazenizkigute | genuke. |
| b) bazenigute | genuke. |
| c) bazenizkigute | genituzke. |
| d) bazenigute | genituzke. |

33. *Gaur eskolan, maisu Juanek etxerako lanak ..... dizkigu.*

a) bidali
b) bultzarazi
c) agindu
d) zamatu

34. *Nire ustez irakasle horrek begitan hartu zaitu.*
Zer esan nahi du esaldi horrek?

a) Ez ustean harrapatu zaituela.
b) Zurekin maitemindua dagoela.
c) Begikoa zaituela.
d) Ezin ikusia dizula.

35. **Zein ezin** da erabili?
*..... ez duzu gaindituko.*

a) Ikasten ez baduzu
b) Ikasi ezean
c) Ikasi ezezik
d) Ikasi ezik

36. *Nire ..... Tourmaletera bizikletaz igoteko asmoa dute.*

a) adiskideek
b) adiskideak
c) adiskide
d) adiskidek

37. *Zuri hitz egiten ari ..... istripua gertatu zen.*

a) zintzaizkidanean
b) nintzaizuenean
c) zintzaidanean
d) nintzaizunean

38. *Txori-kabia ..... erori da.*

a) zuhaitzetik lurrara
b) zuhaitzetik lurrera
c) zuhaitzatik lurretara
d) zuhaitzatik lurrera

39. *Nagusiak lana buka ..... agindu digu.*

a) diezaiodan
b) gaitezen
c) ditzagun
d) dezagun

40. *Aneren senarra Idoiaren ..... da.*

a) anaia
b) neba
c) arreba
d) ahizpa

41. *Nondik zatoz?*

a) Bakarrik nator.
b) Lagunekin egotetik.
c) Kalearengandik.
d ) Herenegundik.

42. ..... *aparte utzirik, guztiok egin duzue txarto herenegungo azterketa.*

a) Banaka batek
b) Banaka bat
c) Banakaren bat
d) Banakaren batek

43. **Zein ez** da *hondatu* hitzaren sinonimoa?

a) Epeldu.
b) Apurtu.
c) Galdu.
d) Usteldu.

44. *Ederra egin digute Altos Hornosekin!* Zer esan nahi du?

a) Altos Hornos lehen baino politago dagoela.
b) Altos Hornos dotore jarri dutela.
c) Altos Hornosen kutsadura ezabatu egin dutela.
d) Altos Hornos hondatu egin dutela.

45. *Irakasleak, gaur goizean klasean kantatzeagatik, zigortu egin gaitu.* Zein da *kantatzeagatik*-en baliokidea?

a) Kantatu genuen arren.
b) Kantatu dugun arren.
c) Kantatu genuelako.
d) Kantatu dugulako.

46. *Bihartik aurrera Andoniri euskara ..... eskatu diot.*

a) irakatsi beharko diezadan
b) irakats diezadan
c) irakatsiko diezadan
d) irakasten diezadan

47. Zein dago ondo?

a) Atzo, etxe horretako atzoak sudurra hautzi zuen.
b) Atzo, etxe horretako atsoak sudurra hautzi zuen.
c) Atso, etxe horretako atzoak sudurra hautsi zuen.
d) Atzo, etxe horretako atsoak sudurra hautsi zuen.

48. Noiz izaten da egunsentia?

a) Eguberritan.
b) Arratsaldean.
c) Ilunabarrean.
d) Goizean.

49. Zein da zuzena?

a) Aurkeztu duten mutilek ez daki ezer.
b) Aurkeztu duten mutilak ez dakite ezer.
c) Aurkeztu diren mutilak ez dakite ezer.
d) Aurkeztu diren mutilek ez dakite ezer.

50. *Nik oporretan ezagutu...*

a) zenidan.
b) zintudan.
c) ninduzun.
d) nizun.

51. *Ikasketa-bidaia egiteko dirua aldatu behar izan genuen herenegun. Noiz joango gara bidaia egitera?*

a) Duela bi urte.
b) Atzo.
c) Handik 36 ordura.
d) Hamabi egun barru.

52. *Mikel eta Miren larru-gorritan ikusi ditugu.*
Zer esan nahi du esaldi horrek?

a) Borrokan ikusi ditugula.
b) Eguzkitan egon ondoren azala gorrituta daukatela.
c) Biluzik ikusi ditugula.
d) Maitasuna egiten ikusi ditugula.

53. *Zenbait ..... ez du oraindik lana bukatu.*

a) ertzainik
b) ertzainek
c) ertzaina
d) ertzainak

54. *Atezainak baloia...*

a) harrapa dezake.
b) harrapatzen dezake.
c) harrapatuta dezake.
d) harrapatuko dezake.

55. *Leire ..... handiko emakumea da.*

a) irudi-salmenta
b) irudimen
c) irudigarri
d) irudigintza

56. *Zertaz da liburu hori?*

a) Matematikaz buruz.
b) Matematika buruz.
c) Matematikaz.
d) Matematikaren buruz.

57. *Lagunduko dizut mendira igoten.*
Zein da parekoa?

a) Lagunduko dizut mendian gora.
b) Lagunduko dizut mendia igotearren.
c) Lagunduko dizut mendian igoten.
d) Lagunduko dizut mendia igotekoan.

58. *Esanak esan, ikasleek beti egiten didate jaramon.*
Zer esan nahi du esaldi honek?

a) Esaten diedana esaten diedala, ikasleek kasu egiten didate.
b) Esanaren gora-behera ikasleek kasu egiten didate.
c) Esaten diedanagatik egiten didate kasu ikasleek.
d) Esaten diedanaren arabera egiten didate kasu ikasleek.

59. *Eskola horretan darabilten .....-metodoa oso klasikoa da.*

a) ikastaldi
b) irakastaldi
c) ikasketa
d) irakasmen

60. *Hirurok afaltzera joango gara eta ..... gastatuko dugu.*

a) bost milaka pezeta
b) bost mila pezetana
c) bostna milana pezeta
d) bostna mila pezeta

61. *Datorren ikasturtea ..... hasiko da.*

a) irailak 4an
b) irailaren 4ean
c) irailaren 4ak
d) irailaren 4a

62. *Iñakik zalantza bat du eta irakasle ..... doa argitzera.*

a) horretara
b) horrera
c) horrengan
d) horrengana

63. *Zuzendaria buru-belarri dabil lanean.*
Zer esan nahi du esaldi horrek?

a) Jo eta ke ari dela lanean.
b) Etsiturik dagoela.
c) Ganorarik gabe dabilela lanean.
d) Lanak gainezka eginda dabilela.

64. *Semearen emaztea, haren gurasoekiko ..... da.*

a) erraina
b) iloba
c) amaginarreba
d) suhia

65. *Gaur eguneko haurrak ..... geratzen dira telebistaren aurrean.*

a) leloturik
b) leloak
c) lelorik
d) leloa

66. **Zein ez** da zuzena? *Istripua ikusi ..... ospitalera deitu dugu.*

a) bezain azkar
b) bezain berehala
c) bezain agudo
d) bezain laster

67. Zein dago **txarto**? *Guri entzun ondoren...*

a) amore eman behartzen dute.
b) amore eman behar dute.
c) amore eman behar izan dute.
d) amore eman izan dute.

68. Zein dago **txarto**?

a) Ematzadazu liburu horiek.
b) Emazkidazu liburu horiek.
c) Eman liburu horiek.
d) Emadazu liburu hori.

69. Zein dago **txarto**? *Ez dakit egoki erantzun...*

a) dizun ala ez.
b) dizunik.
c) dizun.
d) ote dizun.

70. *Ahul* hitzaren esanahi antzekoena duen hitza zein da?

a) Maltzur.
b) Mardul.
c) Malgu.
d) Makal.

71. *Nahi baduzu herriko enparantzan elkar ..... guztiok.*

a) diezaiokegu
b) dezakegu
c) gaitezke
d) daiteke

72. *Atzoko manifestazioan ..... bat lagun bildu ginen Bilbon.*

a) mileko
b) mila
c) milaka
d) milana

73. *Lekutan dago nire tesi doktorala!* Zer esan nahi du?

a) Ondo gordeta dagoela.
b) Parisera bidali duzula.
c) Denbora luzean ez duzula idatziko.
d) Horman eskegita dagoela.

74. *Klaustroan Begoña aukeratu genuen...*

a) ikasketabururako.
b) ikasketaburutzako.
c) ikasketaburua.
d) ikasketaburu.

75. *Gu zuek ..... gara.*

a) bezain aberatsagoak
b) baino aberatsagoak
c) beste aberatsagoak
d) baino aberatsagoa

76. *Eskolako ..... azkarrena zeu zara.*

a) ikasleko
b) ikasleren
c) ikaslerik
d) ikaslea

77. ..... *eguraldi ona egingo du.*
**Zein ezin** da erabili?

a) Agian
b) Antza denez
c) Beharbada
d) Badirudi

78. Zein esaldi da zuzena?

a) Gela honetan guztiek dakite frantsesa Mirenek izan ezik.
b) Gela honetan guztiek izan ezik dakite frantsesa Mirenek.
c) Gela honetan guztiek dakite frantsesa izan ezik Mirenek.
d) Gela honetan izan ezik guztiek dakite frantsesa Mirenek.

79. Zer esango diezu lanerako gogorik **ez** duten ikasleei?

a) Zein alferrak zarete!
b) Alferkeriaz beteta zaudete!
c) Alfer galantok!
d) Alfer samar zarete!

80. Zein da *gailendu* hitzaren kontrakoena?

a) tente jarri
b) goititu
c) jausi
d) luzatu

81. *Nagusiak horma hori eraikitzeko ..... dit.*

a) igorri
b) irauli
c) asmatu
d) agindu

82. **Zein ez** da baliokidea?

a) Hura ikusten zuenean ez zuen barrerik egiten.
b) Hura ikusten zuen hartan ez zuen barrerik egiten.
c) Hura ikusten zuenez ez zuen barrerik egiten.
d) Hura ikusten zuelarik ez zuen barrerik egiten.

83. *Eztia hartuta ere, ez zaio...*

a) eztula kendu.
b) zorabioa kendu.
c) beldurra kendu.
d) arnasa kendu.

84. *Zein ..... ahaztu zenituen liburuak?*

a) solairuotan
b) solairuetan
c) solairutan
d) solairuan

85. *Zuek lapurtu ..... bizikletak.*

a) zenizkiguten
b) genizkizueten
c) zenizkigun
d) genizkizuten

86. *..... sarreran egongo gara zure zain.*

a) Etxetik
b) Etxearen
c) Etxea
d) Etxean

87. *Betaurrekoak ..... esan zion eta horrela gertatu zen biharamonean.*

a) galduko zitzaizkiola
b) galduko zitzaizkion
c) galdu zitzaizkiola
d) galdu zitzaizkion

88. **Zein ez** da adjektiboa?

a) Mardula.
b) Zilborra.
c) Egoskogorra.
d) Zitala.

89. *Zergatik ez duzu egin?*

a) Ez dudalako nahi.
b) Ez nahi izateagatik.
c) Ez nahi dut eta.
d) Ez dudala nahi.

90. **Zein ez** da buruko atala?

a) Birika.
b) Bekaina.
c) Betilea.
d) Okotza.

Ariketa honetako azken hamar galderei erantzuten hasi baino lehenago, irakurri arretaz ondoko testu hau. Testuan hamar hutsune dituzu (91tik 100era). Hutsune bakoitzerako, lau aukera dituzu. Markatu aukera egokia erantzun-orrian.

**Kukurruku, hemen nago**

Azterketek diotenez, oilarrek eta oiloek zenbait mugimendu, keinu eta ... 91... bidez ulertzen dute elkar; beraz, gorputz-lengoaia dutela esan daiteke.

Txikitan txioka ari ohi dira etengabe; horrela egingo ez balute, amak ez lieke ...92... egingo.

Hotzak daudenean, azkarrago eta ozenago egiten dute txio, oiloak hegapean babes ditzan. Galtzen direnean askoz hots ...93... ateratzen dute, negarrez ari balira bezala, amaren begirada ...94... .

Urduri edo mehatxupean daudenean, edo errun ondoren, oiloek kakara egiten dute; beste batzuetan, ...95... , sakabanatutako txitoak biltzeko balio izaten du kakarak.

Lur gainean mugitzen den edozer izaki (zakurra, katua edo pertsona) ...96... , oilarrak eta oilalokek (besteek ez hainbeste) hots labur eta zorrotzak ateratzen dituzte, oilategia ...97... jarrarazteko.

Era berean, oilarrak edo oilalokek -beste oiloek oso gutxitan-, aireko arriskuren bat ...98... dutenean, «kiu» labur eta larri baten gisako alarma jotzen dute. Hau entzutean, oilaskoak bazterrik hurbilenean gordetzen dira, edo amaren hegapean, eta arriskua pasatu ...99... ez dira handik mugitzen.

Oilarraren kukurrukuak hau esan nahi du gutxi gora-behera: «Hemen nago!» Gudarako eta kortejatzeko oihua izateaz ...100... , bere lur-eremua mugatzeko ere baliatzen da hartaz.

«Nola komunikatzen dira animaliak», H. Schmid. Itzulpen egokitua.
Salvat Arg., Barcelona, 1986.

91. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) orroa
b) janari
c) moko
d) jarrera

92. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) jaramonik
b) ardurarik
c) axolarik
d) soinurik

93. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) maitakorragoa
b) sarkorragoa
c) ankerragoa
d) baikorragoa

94. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) ezabatzeko
b) harrapatzeko
c) ekartzeko
d) irabazteko

95. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) ordez
b) berez
c) ordea
d) baizik

96. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) askatzean
b) ikustean
c) lortzean
d) jakitean

97. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) erne
b) bistan
c) harremanetan
d) sutan

98. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) agertzen
b) begiratzen
c) antzezten
d) antzematen

99. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) ezinik
b) arte
c) bitartez
d) gabe

100. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) bestalde
b) gain
c) aina
d) kanpo

## 2. IRAKURRIAREN ULERMENA (HE2)

— artikulua osorik irakurri, erantzuten hasi aurretik.
— zenbaki bakoitzak hitz bat kendu dela adierazten du.
— aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza, eta hurrengo orrian markatu.

### Zahartze demografikoa

Egunkarian gazte baten gutuna irakurri dut, jubilatuek bidaiatzeko erakunde publikoetatik...1...ez dituzten laguntzak jasotzen dituztela salatuz.

Soziologoek, aldiz, zaharrak...2...joeraz ohartarazi gaituzte.

Izenik baduena esistitzen dela dio tradizioak, baina ez du...3...izenik ez duena esistitzen ez denik. Zaharrei ematen diegun tratuaz...4...ezin hobea dugu. Zeinen ongi sentitzen garen edadetuei, badaezpada...5...ahotsa altxatuz, eta hala ez badira ere aiton-amonatzat hartuz,...6...daudela esaten diegunean, haur kakanarruenari zenbat hazi den esaten diogunean...7... . Ez dut ikusten zoritxarrez soziologoek hortik zehar egiaztatzen dutenaren salbuespen...8...sinesteko arrazoirik.

Azken boladan era guztietako komunikabide espezializatu eta orokorretan...9...franko ikusi, entzun eta irakurri ahal izan da «...10...demografiko» izenpean jakinarazi diguten gaiari buruz. Normalean ingurugiroaren...11...edo arrisku atomikoari dagokienez ezbehar ikaragarritzat ematen diguten fenomeno...12...badirudi inplizituki -subliminalki litzateke hitza- zaharrei leporatzen zaiela: agian bizi-nahi neurrigabe eta berekoiaz...13...egunak jubilatu-etxeetan dantzari eta dohaineko txartelez bidaia luzatzeko axolagabekeria...14...zaharrei alegia.

Zaharrak ez dira noski zahartze demografikoaren...15... . Are gehiago, berez ezin esan dezakegu gure gizartea zahar...16...duelako zaharra denik, osagarriak diren bi faktorek determinatzen baitute...17...hori.

Bada piramide demografikoaren «oinarriaren zahartzea» esaten zaion kontua: hamabost urtetik...18...populazioak biztanle guztien artean zer proportzio duen adierazten du horrek. Bada piramidearen «...19...zahartzea» ere; hirurogeita bost urtetik gorako populazioak biztanle guztien artean zer proportzio duen adierazten du horrek. Bi adierazpenen...20..., eta bi ikuspegietatik, egiten du Suediako, Germaniako, Suizako eta Luxenburgoko...21...zahar. Beste muturrean, Albania dago: oso herri gaztea da hau piramidearen goialdean eta...22...gaztea behealdean.

Tartean, era guztietako konbinazioak daude. Espainia, adibidez, Europa...23...bi piramide-puntetan gutxi zahartua dago. Frantzia, alderantziz, bi puntetan aski...24... . Euskal Autonomi Elkartean, berriz, populazioaren %10,27a 65 urtetik gorakoa...25...eta %21,60a baino ez 15 urtetik beherakoa; beraz, esan daiteke gutxi zahartua dela goian eta aski zahartua behean; edota, bestela ...26..., gure bizilagunen artean ez dela zaharrik sobra, baizik eta gazteak direla...27... .

Hori da gure problema, birsorkuntza-tasaren urritasuna. Europa osoko txikiena,....28...berritzeko behar genukeena baino eskasagoa. Azken urteotan ez dugu

aski umerik...29... .Umeak izateko sasoian daudenek ez dituzte, besteak beste,...30...berez beharko lituzketen baldintza sozial eta ekonomikoak...31... .

Zahartze demografikoa ez da beraz zaharren errua; ...32...ere, gazteena eta helduena da. Hobeto esan,...33...izatera edo ez izatera eragiten duen bizigiroarena. Bizigiro horren biktima gara guztiok, eta zaharrei erakunde...34...finantziaturiko bidaietan parte hartzea tokatu bazaie bizigiro horren...35...izan da noski.

**Lapitzez, dagokion letra biribil batez inguratu**

1. a) zaharrek
   b) gazteek
   c) epaitzen
   d) garbitzen

2. a) hausnartzeko
   b) maileguz hartzeko
   c) diskriminatzeko
   d) bideratzeko

3. a) esaten
   b) baztertzen
   c) kentzen
   d) kanporatzen

4. a) ahaztarazteko
   b) iritzi
   c) asmo
   d) jabetzeko

5. a) agian
   b) ere bai
   c) eta
   d) ere

6. a) gaizki
   b) erne
   c) bizkor
   d) motel

7. a) bezala
   b) adina
   c) bezain
   d) arabera

8. a) diren
   b) garen
   c) dutela
   d) garela

9. a) eztabaida
   b) zahar
   c) hizlari
   d) lehia

10. a) garatze
    b) zahartze
    c) ugaltze
    d) baztertze

11. a) porrotari
    b) arrakastari
    c) gatazkari
    d) kutsadurari

12. a) horrek
    b) horietaz
    c) hori
    d) horiek

13. a) zerbaiten
    b) beren
    c) guztion
    d) zenbaiten

14. a) dieten
    b) dagokien
    c) duten
    d) dituzten

15. a) errudun
    b) lekuko
    c) ondorio
    d) partaide

16. a) gutxiago
    b) gehiegi
    c) gehiago
    d) gutxiegi

17. a) triskantza
    b) hondamendi
    c) gertaera
    d) liskar

18. a) aurrera
    b) beherako
    c) bezalako
    d) hona

19. a) orotarikoaren
    b) perimetroaren
    c) osoaren
    d) goialdearen

20. a) konbinazioak
    b) iritziak
    c) borondateak
    d) noraezak

21. a) hiribarnea
    b) gaztea
    c) herri-zaingoa
    d) populazioa

22. a) erabat
    b) ere bai
    c) baita
    d) ahal delarik

23. a) ekonomian
    b) barruan
    c) aldetik
    d) ikuspegiaz

24. a) gaizki
    b) gaztetua
    c) zahartua
    d) ondo

25. a) daukate
b) dute
c) zaio
d) da

26. a) ere
b) auskalo
c) baino
d) esanik

27. a) gazte
b) falta
c) ameslari
d) berebizikoak

28. a) populazioa
b) mundua
c) gazteak
d) zaharrak

29. a) sortzen
b) uzten
c) zaintzen
d) baztertzen

30. a) horren
b) horregatik
c) horretarako
d) hain

31. a) gainditzen
b) onartzen
c) aurkitzen
d) eragozten

32. a) izan
b) baita
c) izanda
d) izatekotan

33. a) haurrak
b) debekuak
c) baimenak
d) deialdiak

34. a) mardulek
b) herrikoiek
c) askok
d) publikoek

35. a) mesedetan
b) eraginez
c) aginduz
d) atzean

## IDATZIZKO ARIKETAK

a) Boligrafoz edo lumaz idatzi.
b) Testu osoa letra larri edo maiuskulaz **ez** idaztea gomendatzen da.

Zirriborroetarako

## 3. OHARRA IDAZTEA (HE1 eta HE2)

Gaur goizean, kotxea mugitzean, ondoko kotxea jo duzu. Noiz eta oporretara zoazen egun berean! Ez duzu kotxe horren jabea ezagutzen. Une horretan inguruan daudenek ere ez. Utziozu ohar bat, zer gertatu den azalduz.

Idatzi oharra, lauki hau beteaz:

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

.......................................................................................

## 4. ESKABIDEA EGITEA (HE1 eta HE2)

Irakaslea zara eta jimnasi ikastaro bat egin nahi duzu. Bi hilabeteko baimena eskatu nahi duzu horretarako. Egizu eskabidea ordezkaritzan (delegazioan), arrazoiak emanez.

Idatzi eskabidea lauki hau beteaz:

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

................................................................................

## 5. JENDAURREKO AZALPENA (HE1 eta HE2)

Asignatura jakin bateko irakasle berria zara. Zure taldeko gurasoei eskutitz bat idatzi, honako puntuok zehaztuz:

— Zeure buruaren aurkezpena.
— Emango duzun gaiaren azalpena (helburuak, metodologia, ebaluazioa...).
— Gurasoentzako kontsulta-orduak noiz. Harremanak nola.
— Erosi beharreko ikasmaterialak: non erosi eta nola ordaindu.
— Agurra.

Idatzi azalpena lauki hau beteaz:

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

..................................................................................

## 6. IDAZLANA (HE2)

**Gaia: Irakasle-lana eta osasun-arazoak: gaixotasun nagusiak, beren jatorria eta trataera posibleak.**

— Egizu idazlan honetan erabiliko duzun eskema.
— Gutxienez 70 lerro dituen idazlana egin behar duzu.
— Zuzendaria zara. Eskola-Kontseilurako aukeratu berriak diren gurasoentzat presta ezazu txosten bat.
— Kontuan hartuko diren elementuak. Bai laburpenean eta bai idazmenean puntuok hartuko dira kontuan:

- gaiaren garapena (edukina, esaten dena)
- gramatika-zuzentasuna
- testu-moldaera:
  — testuaren plangintza, egituraketa.
  — kontestualizazioa: zein egoeratan idatzia denari (hartzaileari, medio edo igorbideari, tokiari, garaiari...) egokitua ala ez.
  — testu-motari egokitua ala ez.
  — konexioa: juntagailuak, lokailuak, puntuazioa.
  — kohesioa: testuaren batasuna eta progresioa (formen jarraipena: aditz-aldienak, puntuazio-zeinuenak...).
  — koherentzia: mezuaren jarraipena.

### ESKEMA

.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................
.................................................................................................................

## IDAZLANA

## IDAZLANA

## IDAZLANA

# I.2 ZENBAIT ARIKETAREN ALDAERAK*

## IRAKURRIARAREN ULERMENA (HE2)

### Inor ba al dago?

Unibertsoan bakarrik al gaude? Bizia beste nonbait ere garatu al da? Eta garatu...1..., izaki inteligenterik eman al du? Antzeko galderak makina bat bider egin dizkio...2...bere buruari. Ondorioz, datu zehatzen faltan, arrapostuak bariatuak, anitzak eta tankera...3...izan dira. Biziaren singularitatea (Lurrean baino ez da garatu)...4...dute batzuek; besteek, ordea, aniztasuna. Azken hauekin nago ni. Baldintzak...5...badira, bizia unibertsoko edozein txokotan sor daitekeela uste dut. Gainera, gure...6...eta bere jatorri eta bilakabideaz dakiguna kontuan izanik, bizia garatzeko baldintzak...7...daude unibertsoan.

Bizi estralurtarraren aztarnen bila hasi da joan den urriaren 12an NASA, $100 milioi kostako den SETI izeneko proiektuaren...8... . Proiektu honek ez du kohete indartsurik edo zunda espazial sofistikatuen beharrik,...9...gainazaletik egingo baita bilatze-lana. Bizi estralurtarraren bilaketa irrati-teleskopioen bidez burutuko da,...10...estralurtarrek espaziora bidalitako irrati-seinaleak detektatu nahi direlako. Horrela egiteko arrazoiak eta bilatze-lanean...11...diren baliabideak hemen azaltzeko asmorik ez dut. Irakurleak gai horretan...12...gogorik badu, *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariko 1993ko urtarrileko alea irakurtzeko...13...egiten diot.

Espazioko irrati-seinaleak detektatu gura izatea, espazioko besteren telefonolinean...14...dela esaten dute SETIren kontra daudenek, eta gonbidatu ez gaituzten...15...sartu nahi izatea arriskutsua izan daitekeela eransten. Gurea baino askoz

* Azterketa-eredu desberdinak erabiltzen direnez gero, ariketa jakin batzuk ordezkatu egin dira eredu batetik bestera. Ondoko orrialdeetan biltzen dira horrelako aldaerak.

ere...16...dagoen zibilizazio batekin harremanetan jartzen bagara, hark irentsi egingo gaituela esaten...17...eta *«begira Ameriketako indioei jazotakoa bestela»* azpimarratzen dute. Ikertzaileok izaki inteligente...18...horiek *Alien* filmeko munstrotzar odolzalearen modukotzat jotzen dituzte.

NASAk eta SETI proiektuaren...19...hainbat erakunde sustatzailek nahiago dute ET moduko balizko estralurtarrik irudikatu. Azkenik, amets kontuan...20...joaten direnek Lurraren salbatzailetzat hartzen dituzte. Erlijio berria ote?

Bi...21...desegokiak eta sinpleegiak direla ez dago dudarik eta ezezagunaren aurrean ...22...diren arketipo argiak dira. Estralurtarrik topatzen badugu, ez da ez deabru eta ez jainko...23... .

Aurkitzen badugu, zer? Bakarrik ez gaudela segurutzat eman ahal izango dugu ... 24 ... . Eta aurkitzen ez badugu? Oraingo egoera berean egongo gara; biziaren singularitatearen...25...nahiz aldeko argudioek sendo iraungo dute. Toki egokian eta une egokian...26...ez dugula esan nahi izango du, soil-soilik.

Aurkituz gero, komunikazioa...27...ote litzateke? Izarrarteko mintzakideei telefono-linea luzatu egin diegula adieraztea...28...izango ote den ikusi beharko litzateke lehen-lehenik. Horretan ere...29...ez dago. Batzuek, esate baterako, *«Hemen gaude»* moduko mezua lau haizetara zabaldu beharko...30...defendatzen dute; beste batzuek, zuhurrago jokatuz, zain eta adi...31...gomendatzen dute. Eztabaida horrek irtenbide xamurrik ez du, bestalde.

Gainera, elkarrekin nola...32...? Nahikoa onartua dagoen iritziaren arabera, izaki inteligente estralurtarrekin komunikatzeko ahalmena, tribu primitibo bateko kideen eta gizaki ...33...artean komunikatzeko ahalmenarekin konpara daiteke. Horretara bultzatu...34..., besteak beste, zientzi fikziozko idazleek. Alabaina, berariaz gogoratu nahi izango nuke...35...egin zuen konparazioa: gizakion eta izaki inteligente estralurtarren komunikazioa, barraskiloen eta gizakion artekoarekin konparatzen zuen hark.

## Lapitzez, dagokion letra biribil batez inguratu

1. a) bada
   b) adina
   c) denez
   d) balitz
2. a) arrazoiz
   b) bakarka
   c) zientziak
   d) gizakiak
3. a) guztietakoak
   b) berdinekoak
   c) honetakoak
   d) onekoak
4. a) pentsatzen
   b) ikertzen
   c) aldarrikatzen
   d) menperatzen
5. a) egokiak
   b) mikatzak
   c) labainkorrak
   d) urriak
6. a) orraziaz
   b) planetaz
   c) luzapenaz
   d) bizimoduaz
7. a) nonnahi
   b) nonbait
   c) inon
   d) non
8. a) atzetik
   b) bidez
   c) medioz
   d) erdian
9. a) lurraren
   b) gure
   c) espazioaren
   d) ilargiaren
10. a) gogarte
    b) seinale
    c) zibilizazio
    d) goraintzi
11. a) erabiliko
    b) erakarriko
    c) ibiliko
    d) eragingo
12. a) ikasteko
    b) sakontzeko
    c) gelditzeko
    d) jakiteko

13. a) gogoa
b) erronka
c) egitasmoa
d) gomendioa

14. a) alokatzea
b) zimurtzea
c) sartzea
d) eralgiltzea

15. a) elkarrizketan
b) sal-erosketan
c) festaburuan
d) ezteietan

16. a) urrutiago
b) garatuago
c) gertuago
d) egokiago

17. a) diete
b) dituzte
c) diote
d) dute

18. a) ezagun
b) hipotetiko
c) betiko
d) azkar

19. a) beste
b) arabera
c) ustez
d) erdian

20. a) urduriago
b) maiteminez
c) zintzo
d) azkeneraino

21. a) erlijiook
b) zorabideok
c) jarrerok
d) ikerketok

22. a) agertzen
b) iragartzen
c) txunditzen
d) astintzen

23. a) esistituko
b) izango
c) noski
d) ikusiko

24. a) batzuek
b) berariaz
c) gainera
d) bederen

25. a) kontrako
b) esperantza
c) arrazoizko
d) helburuko

26. a) egoten
b) bizitzen
c) bilatzen
d) irauten

27. a) zintzurra
b) posible
c) besazpikoa
d) arbelezkoa

28. a) komenigarria
b) lokarri
c) eztarria
d) aldarrikagarria

29. a) estuasunik
b) erosotasunik
c) maiztasunik
d) adostasunik

30. a) genukeela
b) lukeela
c) lituzkeela
d) duketela

31. a) gaudela
b) gorestea
c) egotea
d) iragaztea

32. a) itzulikatu
b) komunikatu
c) belaunikatu
d) aholkatu

33. a) libreen
b) komunikatibo
c) estralurtarren
d) zibilizatuen

34. a) gaituzte
b) gaitzaketen
c) digute
d) diezagukete

35. a) nork
b) nik
c) jakitun batek
d) nola

## OHARRA IDAZTEA (HE1 eta HE2)

### 1.-

Eskolako bulegoan zaudelarik, telefono-dei bat jaso duzu. Une horretan bertan ez dagoen beste lankide batez galdetu dute. Egiozu lankide horri ohar bat, nork eta zertarako deitu dion zehaztuz. Irakur ezazu ondoko elkarrizketa eta egiozu zure lankideari honen araberako oharra.

*.........Riiiiiiiiiiing (telefono-hotsa)*

**Irakaslea:** *Bai esan!*
**Amaginarreba:** *Bego hor al dago?*
**Irakaslea:** *Ez, momentu honetan ez. Zerbait esatea nahi duzu?*
**Amaginarreba:** *Bai begira... Begoren amaginarreba naiz. Nire semeak, umeen bila joateko kotxea hartzera joatean, utzitako tokian ez zegoela ikusi du.*
**Irakaslea:** *Lapurtuta edo...?*
**Amaginarreba:** *Ez, ez. Baina, horren beldur zelarik, udaltzain batengana hurbildu da. Honek, gruak eraman duela esan dio.*
**Irakaslea:** *Bai?*
**Amaginarreba:** *Bai, bai. Horregatik, Begok joan beharko du umeen bila.*
**Irakaslea:** *Bale, bale.*
**Amaginarreba:** *Itxoin, itxoin. Oraintxe konturatu naiz: gaur ostirala da eta ostiraletan umeak ingelesera joaten dira. Gogora egiozu hori ere!*
**Irakaslea:** *Bale, bale, ohartxo bat jarriko diot. Agur!*
**Amaginarreba:** *Agur, eta mila esker!*

### 2.-

Bulegoan zaudela telefono-dei bat jaso duzu eta une horretan ez dagoen beste lankide batez galdetu dute. Egiozu lankide horri ohar bat, nork eta zertarako deitu dion zehaztuz. Irakur ezazu ondoko elkarrizketa eta idatzi honi dagokion oharra.

*.........Riiiiiiiiiiing (telefono-hotsa)*

**Irakaslea:** *Bai, esan!*
**Aurrezki Kutxa:** *Felipe hor al dago?*
**Irakaslea:** *Ez, ordu erdi barru hemen egongo da. Enkarguren bat utzi nahi duzu?*
**Aurrezki Kutxa:** *Bai, Aurrezki Kutxatik deitzen diot. Orain dela hiru aste eskatutako mailegua eman zaio. Bihar, goizeko bederatzietan, paperak sinatzera etorri behar du.*
**Irakaslea:** *Bale, esango diot.*
**Aurrezki Kutxa:** *Baina, ahaztu gabe, nortasun-agiria eta etxeko eskriturak ekarri behar ditu.*

**Irakaslea:** *Besterik?*
**Aurrezki Kutxa:** *Bai, hona etorri aurretik notariatik pasa behar du paper horiek jasotzera, prest daude eta.*
**Irakaslea:** *Ondo da. Jarriko diot hori ere.*
**Aurrezki Kutxa:** *Bale, agur eta mila esker!*

**3.-**

Eskolako bulegoan zaudelarik, telefono-dei bat jaso duzu. Une horretan bertan ez dagoen beste lankide batez galdetu dute. Egiozu lankide horri ohar bat, nork eta zertarako deitu dion zehaztuz. Irakur ezazu ondoko elkarrizketa eta idatzi zure lankideari horren araberako oharra.

*.........Riiiiiiiiiiing (telefono-hotsa)*

**Irakaslea:** *Bai, esan.*
**Bidai ajentzia:** *Maite hor al dago?*
**Irakaslea:** *Ez, bilera batera joan da. Zerbait esatea nahi al duzu?*
**Bidai ajentzia:** *Bai, eskertuko nizuke mesede hori egitea. Begira... bidai ajentziatik deitzen dut. Uztailaren 22rako enkargatutako hegazkin-txartela ez dugu lortzerik izan.*
**Irakaslea:** *Orduan, New Yorkera joateko txartelik ez duela esango diot, ezta?*
**Bidai ajentzia:** *Egun horretan, ez; baina astebete beranduago nahi badu, bai.*
**Irakaslea:** *Ondo da; esango diot.*
**Bidai ajentzia:** *Hala ere, 22an Los Angelesera joateko aukera du. Beraz, erabaki dezala eta datorrela bulegora.*
**Irakaslea:** *Bale, ikusten ez badut, ohartxo bat idatziko diot.*

## ESKABIDEA EGITEA (HE1 eta HE2)

**1.-**

Irakaslea zara eta laster ezkontzekoa. Dagozkizun oporrak hartu nahi dituzunez, egin eskabidea hezkuntza-ordezkariari.

**2.-**

Irakaslea zara eta ingeles-ikastaro bat egin nahi duzu. Horretarako, soldatarik gabeko bi hilabeteko baimena eskatu nahi duzu. Egin eskabidea ordezkaritzan (delegazioan), arrazoiak emanez.

**3.-**

Eskolako zuzendaria zara. Zure ikastetxea leku desegokian dago. Trafiko handia dabil. Joan den astean, adibidez, istripu txiki bat gertatu zen eta bi ikasle zauritu egin ziren. Eskatu trafiko-arduradunari, seinale hobeak ipintzeko.

## JENDAURREKO AZALPENA (HE1 eta HE2)

**1.-**

Tutorea zara. Ikasleentzat egun batzuetako bidaia antolatu nahi duzu. Egin deialdi bat irakasmaila berean dauden ikasle guztientzat. Azaldu bidaiaren iraupena, egin nahi den bidea, ikusiko dituzuen lekuak, eraman beharreko dokumentazioa, bidaiaren kostua eta bestelako zehaztapenak. Animatu ikasleak izena ematera.

**2.-**

Tutorea zara. Taldeko gurasoentzako ikasturte-hasierako azalpen bat idatzi behar duzu. Zehaztu bertan ondoko puntu hauek:

— Zure buruaren aurkezpena
— Gelako eta ikastetxeko arauak (disziplina, puntualitatea, irteerak, garbitasuna, osasun-azterketa, jantziak,...)
— Urteko programa, helburuak,...
— Eskolaz kanpoko ekintzak

**3.-**

Literatura-irakaslea zara. Hezkuntza Sailak antolatzen duen ipuin-lehiaketa baten berri eman nahi diezu zure ikasleei. Jarri idazki bat, ondoko puntu hauek zehaztuz:

— Lehiaketaren izena, arauak, epeak, parte hartzeko baldintzak, sariak eta abar
— Animatu ikasleak parte hartzera, arrazoi didaktikoak ere emanez.

## IDAZLANA (HE2)

**Gaia: Gurasoak, ikasleak eta irakasleak. Talde bakoitzaren egitekoak eta elkarren arteko harremanak**

— Egizu idazlan honetan erabiliko duzun eskema.
— Gutxienez 70 lerro dituen idazlana egin behar duzu.
— Zuzendaria zara. Eskola-Kontseilurako aukeratu berriak diren gurasoentzat presta ezazu txosten bat.
— Kontuan hartuko diren elementuak. Bai laburpenean eta bai idazmenean puntuok hartuko dira kontuan:

- gaiaren garapena (edukina, esaten dena)
- gramatika-zuzentasuna
- testu-moldaera:
  - — testuaren plangintza, egituraketa.
  - — kontestualizazioa: zein egoeratan idatzia denari (hartzaileari, medio edo igorbideari, tokiari, garaiari...) egokitua ala ez.
  - — testu-motari egokitua ala ez.
  - — konexioa: juntagailuak, lokailuak, puntuazioa.
  - — kohesioa: testuaren batasuna eta progresioa (formen jarraipena: aditzaldienak, puntuazio-zeinuenak...).
  - — koherentzia: mezuaren jarraipena.

# II. 1993ko BIGARREN DEIALDIA

Oharrak:

[1] Bigarren deialdian idatzizko azterketa bi zatitan bereizi zen: aukera anitzeko galdekizunari erantzun ondoren, atsedenaldi labur bat eman zitzaien azterketariei. Horren ondorioz, idazlanen azterketa-zatia aparteko koaderno batean banatu zen, ondoko ataletan isladatzen den bezalaxe.

[2] Lehen aipatu den bezala, HE2ko azterketa bakarrik agertzen da hemen, HE1eko ariketa guztiak bere barne baititu.

## II.1. HE2ko AZTERKETA-EREDU BAT

❑

**IRAKASLEENTZAKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK**

**HE1/HE2**

**AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNAREN AZTERKETA- -ZATIA**

**AAG**

1993ko urriaren 23a

*Azterketa-eredua:* **A**

### IRAKURRI OHAR HAUEK

1. Liburuska honetatik atera suelto dagoen erantzun-orria.
2. Konprobatu azterketa honek 23 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. **Idatzi segidan zure datuak:**

| | |
|---|---|
| *1. deitura:* ............................................................ | *2. deitura:* ............................................................ |
| *Izena:* ............................................................................................ | *NAN:* ☐☐☐☐☐☐☐☐ |

4. Erantzuten hasi aurretik, bete aparteko erantzun-orriaren B atala eta irakurri liburuska honen 2. orria.
5. Gelatik ezinbestean irten beharra bazenu, arduradun bati adierazi. Bestela, itxaron pausaldiraino.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Gelan ezin da erre.
8. Orri hauek ezin dira gelatik kanpora atera.

## 1. AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA (HE1 eta HE2)

a) Ordubete duzu galdekizun honi erantzuteko; gero erantzun-orria jaso egingo da.
b) Galdera bakoitzean erantzun **egokia** aukeratu eta erantzun-orrian lapitzez markatu.
c) Konturatu, batzuetan galdera **ezezkoa** dela.
d) Galdera bakoitzeko erantzun **bakarra** onartuko da.
e) Guztira 100 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzari puntu bat dagokio.
f) Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
g) *65 erantzun zuzen asmatu behar dira ariketa hau gainditzeko.*
h) Ariketa hau baztertzailea da: hau gainditu gabe ezin da hizkuntz eskakizuna lortu.

1. *Oraindik arazoa argi...*

a) diezazkidakezu.
b) diezadakezu.
c) diezazkidakezun.
d) diezadakezun.

2. *Loteria tokatuko ..... kotxe bat erosiko......*

| | |
|---|---|
| a) balitzaizu | zenidake. |
| b) bazait | zenidake. |
| c) balitzaizu | zinateke. |
| d) bazait | zinateke. |

3. Zein da egokiena?

a) Emakumeen %60 lana etxean egiten du.
b) Emakumeen %60 lana etxean egiten dute.
c) Emakumeen %60ak lana etxean egiten du.
d) Emakumeen %60ek lana etxean egiten dute.

4. *Bistan dago bihotz-bihotzetik elkar...*

a) maite dutela.
b) maitatzen diotela.
c) maite direla.
d) maitc digutela.

5. *Erosi dituzun belarritakoak ..... eginda daude.*

a) zilarrezko
b) zilarrez
c) zilarrakin
d) zilarrekoak

6. Zein da zuzena?

a) Zoaz lotara, berandu da eta!
b) Aizu, joan hadi lotara, berandu da eta!
c) Joan zaitezen lotara, berandu da eta!
d) Zuzendu lotara, berandu da eta!

7. *Zer deritzazu azterketak ez...*

a) egitea?
b) egineri?
c) egiteari?
d) egiten?

8. *Lagunak utzitako liburua galduko balitzait, ez ..... beste bat eskatzera joango.*

a) litzaidake
b) nintzaioke
c) nintzen
d) nintzake

9. *Aneri dirua aurreratuko diot, erosketak berak egin...*

a) ditzan.
b) dadin.
c) dezan.
d) ditzaten.

10. *Mikeli etxera joango ..... ere, ez liguke egia esango.*

a) bagintzaio
b) bagintzaizkio
c) balitzaigu
d) gintzaizkion

11. *Irakaslea ez da oraindik klase batzuetara azaldu. Eta zuk zera galdetzen duzu:*

a) Zein klasera?
b) Zein klasetara?
c) Zeintzu klasera?
d) Zeintzu klaseetara?

12. *Lehen aldiz agurtu zintudanean, ez ..... nor nintzen.*

a) zekizun
b) zenekien
c) zenekidan
d) zenekizun

13. *Ameriketako zure laguna etorri zen momentuan, ni Maiterekin ..... hondartzan.*

a) egon nintzen
b) zegoen
c) egoten nintzen
d) nengoen

14. *Zure lehengusua ez duzu aspaldian ikusi, eta bat-batean kalean topatu duzu.*
Zein da agurtzeko modu egokiena?

a) Kaixo; zenbat denbora ikusi ere ez!
b) Kaixo; aspaldikoan ez zintudan ikusi!
c) Kaixo; ikusi ere ez aspaldi honetan!
d) Kaixo; aspaldian ez dizut ikusi!

15. *Katu horiek teilatu gainean...*

a) darabiltza.
b) dabiltzate.
c) dabilkite.
d) dabiltza.

16. *Atzoko klaustroan Mikel izendatu genuen...*

a) zuzendaria.
b) zuzendariatzat.
c) zuzendari.
d) zuzendariz.

17. *Atzo, herenegun eta gaur euria egin du.*
Zein da baliokidea?

a) Hiru azken egunotan euria egin du.
b) Azken egun hirurotan euria egin du.
c) Hiru egun azkenotan euria egin du.
d) Azken hiru egunotan euria egin du.

18. *Atzo zinemara joan nintzen; baina, amak zinemara joaten utziko bazidan, aurretik etxeko lanak bukatu...*

a) behar izaten nituen.
b) beharko nituen.
c) behar izango nituen.
d) behar izan nituen.

19. *Integralak egiten ..... , hurrengo gaira pasatuko...*

a) balekizkite nintzen.
b) balekite nintzateke.
c) balekizkite nintzateke.
d) balekite nintzen.

20. *Etxerako lanak zorroan...*

a) neramatzon.
b) neramazan.
c) ninderamatzan.
d) neramatzan.

21. Zein da zuzena?

a) Ez dut zuhaitzarik ikusi.
b) Ez dut zuhaitzik ikusi.
c) Ez dut zuhaitzerik ikusi.
d) Ez dut zuhaitzirik ikusi.

22. *Zuk emandako aholku ..... erretzeari utzi diot.*

a) horiegatik
b) horietatik
c) haiengatik
d) haietatik

23. *Hasieran, eskola ..... atsedenaldian futbolean bakarrik egiten zuten.*

a) horkoek
b) horretakoak
c) horretakoek
d) horkoak

24. *Ni ez naiz inoiz ere ez Parisen izan.*
Zer kendu behar da, esaldi hau zuzentzeko?

a) *ez* (lehenengoa)
b) *ez* (bigarrena)
c) *inoiz*
d) *ere*

25. ..... *aurki dezakegu zaletasun hori.*

a) Helduengana
b) Helduen arte
c) Helduengan
d) Helduengandik

26. Aukeratu zuzena.

a) Ez dut uste ikasle honek gainditzea merezi duenez.
b) Ez dut uste ikasle honek gainditzea merezi duela.
c) Ez dut uste ikasle honek gainditzea merezi duenik.
d) Ez dut uste ikasle honek gainditzea merezi duelarik.

27. *Aurten oporrak ..... hartuko ditugu.*

a) ekainak 30ean
b) ekainaren 30ak
c) ekainaren 30ean
d) ekainaren 30an

28. Zein da zuzena?

a) Eskerrak ezkerreko eskua ez duela hautsi.
b) Ezkerrak eskerreko eskua ez duela hautsi.
c) Ezkerrak ezkerreko eskua ez duela hautsi.
d) Eskerrak eskerreko ezkua ez duela hautsi.

29. *Itsasoko ura...*

a) gazia da.
b) gezia da.
c) gozoa da.
d) geza da.

30. *Merke saltzen duzue txakurra eta eros...*

a) diezadaket.
b) diezadakezue.
c) diezazueket.
d) diezazkizuet.

31. *Dirurik izango ..... , eskatzen didazuna erosiko...*

a) banu nizuke.
b) banuen nizun.
c) banu zenidake.
d) banuke nizuke.

32. *Segi ..... lan horretan, ondo ari zarete eta.*

a) zaitezte
b) zaitezten
c) ezazue
d) dezazuen

33. *Aurpegia ahal ..... ongi garbitu arren, eskuak zikin daramatzate bi mutil horiek.*

a) beste
b) bezain
c) bezainbat
d) hainbeste

34. Zein da zuzena?

a) Gaur ez dago nor naizen ez dakienik.
b) Gaur ez dago inor naizela ez dakienik.
c) Gaur ez dago inor naizena ez dakienik.
d) Gaur ez dago nor naizenik ez dakienik.

35. *Zenbat eta euskara gehiago ikasi, ..... aukera ..... oposaketak gainditzeko.*

a) hainbat eta gehiago
b) bestela gehiago dago
c) orduan gehiago
d) hainbestean eta gehiago

36. *Tutorearekin hitz egitera zoaz. Eskolazainak zera diotsu: 'itxaron mesedez, oraintxe ..... tutorea'.*

a) etortzen da
b) etorriko da
c) zetorren
d) etortzen ari da

37. *Hitzaurre honen asmoa ez da lan honetan aritu izan garenon pozak eta nekeak...*

a) agertzen.
b) agertu.
c) agertzea.
d) agertzeko.

38. *Amak antxoak mahaira ..... jan egiten ditut.*

a) atera ahala
b) aterako ala
c) aterako ahala
d) atera ala

39. *Ni, zure aldean, ..... naiz.*

a) handiena
b) handiagoa
c) handia
d) handiegia

40. *Ikasle batek zera esaten dizu: 'Gaur ez naiz 7etan jaiki'. Ez duzu entzun, eta 'zer diozu?' galdetzen duzu.*
Zein dago ondo?

a) Esan dizut gaur ez naiz 7etan jaiki.
b) Esan dizut gaur ez naizela 7etan jaiki.
c) Esan dizut gaur ez naizelako 7etan jaiki.
d) Esan dizut gaur ez naizenik 7etan jaiki.

41. Zein da zuzena?

a) Adiskidegatik hartu ninduten Lasatarrek.
b) Adiskidekotzat hartu ninduten Lasatarrek.
c) Adiskidetzat hartu ninduten Lasatarrek.
d) Adiskideatzat hartu ninduten Lasatarrek.

42. *Aurkeztu ..... ez dakite ezer.*

a) diren mutilak
b) duten mutilak
c) diren mutilek
d) diogun mutilek

43. *Andaluzian bero handia egiten du udan. Inoiz ..... udazkenean joango naiz.*

a) joaterakoan
b) joaterako
c) joatekotan
d) joateko

44. Zein da zuzena?

a) Jan ezezik, edan ere egiten dugu.
b) Jan ezik, edan ere egiten dugu.
c) Jaten dugun ezezik, edan ere egiten dugu.
d) Jan ezezik, edan egiten dugu.

45. *Gelan isiltasuna lortzeko, zer dio andereñoak?*

a) Isiltzen zarete?
b) Isiltzen zaudete?
c) Isilduko zarete?
d) Isiltzen zaitezte?

46. *Ez dugu inoiz ..... jende elkarrekin ikusi.*
Eman erantzun egokiena.

a) hainbeste
b) horrenbesteko
c) hainbateko
d) hura beste

47. Zein dago ondo?

a) Badut lagun bat, pianoa duena.
b) Badut lagun bat, duela pianoa.
c) Badut lagun bat, pianoa duela.
d) Badut lagun bat, duena pianoa.

48. Zein aukeratan du **-TZA** atzizkiak bestetan **ez** bezalako esanahia?

a) Dirutza
b) Hondartza
c) Alkatetza
d) Jendetza

49. Aukeratu erantzun egokia.

a) Zure anaiak ematen du dela zaharragoa.
b) Aurpegiz zaharragoa iruditzen du zure anaiak.
c) Den baino zaharragoa ematen du zure anaiak.
d) Aurpegiz zaharragoa diruditzat zure anaiak.

50. *Zuzendari batek zureari ohar hau pasatzeko eskatzen dizu: Bihar, asteartea, arratsaldeko 6etan zuzendariok bilera daukagu. Nola emango diozu berria?*

a) Bihar, arratsaldeko 6etan bilera daukazue.
b) Bihar, arratsaldeko 6etan bilera daukagu.
c) Bihar, arratsaldeko 6etan bilera edukitzen ahal duzue.
d) Bihar, arratsaldeko 6etan bilera edukitzen duzue.

51. Zein da zuzena?

a) Ume honek zuk bezala hitz egiten du.
b) Ume honek zuk antzera hitz egiten du.
c) Ume honek zure eraz hitz egiten du.
d) Ume honek zure modukoan hitz egiten du.

52. *Aurtengo asignaturetatik, zein gustatu zaizu ... ?*
Aukeratu egokiena.

a) gehiagoen.
b) larregi.
c) hobeto.
d) gehien.

53. *Non dago zuzendaritza?*
Zein da erantzun **desegokia**?

a) Hurrengo pasiloan, ezkerrera.
b) Hurrengo pasiloan, ezker aldera.
c) Hurrengo pasiloan, ezkerrean.
d) Hurrengo pasiloan, ezkerrez.

54. *Gutxiago ..... ez dut argaltzea lortzen.*

a) jatearren
b) jan eta gero
c) janez gero
d) jan arren

55. *Gure herriko ..... jator-jatorra da.*

a) gaztaroa
b) gazteria
c) gaztetasuna
d) gaztetsua

56. Zer da otordua?

a) Otoitz egiteko ordua.
b) Lo egiteko ordua.
c) Otarra egiteko modua.
d) Jateko ordua.

57. Zein **ez** da *arin* hitzaren parekoa?

a) Txoriburua.
b) Bizkorra.
c) Pisugabea.
d) Ertaina.

58. *Garai batean eskola honetan ..... ikasle zegoen.*

a) ehundaka
b) ehunkada
c) ehuneko
d) ehunka

59. *..... biharko klasea zeuk eman beharko duzula.*

a) Beharbada
b) Dirudienez
c) Badirudi
d) Agian

60. Zein da erantzun egokiena?

a) Nahiedonahiko kontua da gure ekonomia indartzea.
b) Esanak esango kontua da gure ekonomia indartzea.
c) Hil ala biziko kontua da gure ekonomia indartzea.
d) Dena delako kontua da gure ekonomia indartzea.

61. *Neure ..... Benidormen pasatuko dut.*
Zein da egokiena?

a) zaharkuntza
b) zaharreria
c) zahartzaroa
d) zaharraldea

62. *Badakizu Iparragirre non jaio zen?*
Aukeratu erantzun egokia:

a) Ideiarik ez ere!
b) Ezta ideiarik ere!
c) Ez bere ideiarik!
d) Ezin izan bere ideiarik!

63. *Gu ..... prestatuko dugu afaria.*

a) bien artean
b) biek artean
c) bion artean
d) biok artean

64. *Dirua gordetzeaz ..... arduratzen da.*

a) diruzaina
b) diruduna
c) diru-emailea
d) dirugilea

65. ***Herri Urrats**etik ..... gure irakaslea ikusi genuen.*

a) gentozen
b) gentozela
c) etortzen ginen
d) etortzen ginela

66. *Bihar eskolara ..... erabakiko dugu.*
Zein da **desegokiena**?

a) joandakoan
b) joaterakoan
c) joatearren
d) joan bezain azkar

67. *Ni zu ..... nago.*

a) bezain nekatuegi
b) baino nekatuago
c) bezainbat nekatua
d) baino nekatuen

68. *Ez dakit egia esan ..... ala ez.*

a) diola
b) dionik
c) dion
d) dioen

69. *Zenbait ..... gauez lan egitea tokatzen zaio.*

a) ertzainari
b) ertzaini
c) ertzainei
d) ertzaineri

70. *Zergatik galdetu duzu?*

a) Kontua argituarren.
b) Kontua argitzegatik.
c) Kontua argituagatik.
d) Kontua argitzearren.

71. *Joxeren emaztea Mikelen ..... da.*

a) ahizpa
b) neba
c) arreba
d) anaia

72. *Hemengo ..... ikastaro berezi bat eskatu dute.*

a) irakaslek
b) irakasleak
c) irakasle
d) irakasleek

73. Zein **ez** da adjetiboa?

a) zuhur
b) ziur
c) enbor
d) elkor

74. *Badakite hamaiketakoa bazkaria baino nahiago...*

a) izaten dugun.
b) izaten dugunik.
c) izaten dugunez.
d) izaten dugula.

75. *Iturri berria ..... jartzeko asmoa dute.*

a) plazako erdian
b) plazarako erdian
c) erdiplazan
d) plazaren erdian

76. *Zein ..... egin duzue bilera?*

a) ikuskariarekin
b) ikuskariekin
c) ikuskarirekin
d) ikuskariaz

77. *Maiz esan ohi denez,...*

a) ustea erdi ustel.
b) ospea erdi ospe.
c) ipurdia erdi ipurdi.
d) ostoa erdi orbel.

78. *Jantzita doan ..... ez dirudi arabiarra denik.*
Zein da **desegokiena**?

a) eran
b) moduan
c) orduan
d) gisan

79. *Esamesak gora-behera, aurrera egitea erabaki dute.*
Zein da baliokidea?

a) Goitik eta behetik esandakoen arabera, aurrera egitea erabaki dute.
b) Ozenki eta ahapean gauzak esanez, aurrera egitea erabaki dute.
c) Goikoei eta behekoei gauzak esanez, aurrera egitea erabaki dute.
d) Entzuten dutena entzuten dutelarik ere, aurrera egitea erabaki dute.

80. *Gaur ez dago berriketarik.*
Zein da baliokidea?

a) Gaur isiltasun-eguna da.
b) Gaur ez da jolas-eguna.
c) Gaur ez da egunkaririk.
d) Gaur ez dago txantxetan ibiltzerik.

81. *Nork ..... du oilo hau, labean erre aurretik?*

a) larrutuko
b) azalgabetuko
c) lumatuko
d) erantziko

82. *Gabardina garbituko ..... , eskerrak emango...*

| | |
|---|---|
| a) bazenigu | genizkizuke. |
| b) bazenigun | genizkizueke. |
| c) baliguzu | genizkizun. |
| d) baziguzun | genizuen. |

83. *Bereak eta bi esan nizkion.*
Zer esan nahi du?

a) Hiru lagunei zegozkien xehetasunak agertu nizkion.
b) Bere familiakoak eta beste birenak argitu nizkion.
c) Egundokoak esan nizkion.
d) Bereak eta beste birenak bakarrik azaldu nizkion.

84. *Azterketa arratsaldeko bostetan ..... da.*
Zein dago **gaizki**?

a) ospatuko
b) egingo
c) burutuko
d) izango

85. Zein da *birrindu* hitzaren kontrakoena?

a) iraindu
b) irakin
c) eraiki
d) erasan

86. Zein da esaldi zuzena?

a) Ez da ordea, nolanahi ere, beraiek gura luketen parekoa.
b) Ez da nolanahi, ordea ere, parekoek gura luketen beraiena.
c) Ez da ordea beraiek, parekoek ere, nolanahi gura luketena.
d) Ez da parekoek ordea, beraiek ere, gura luketen nolanahikoa.

87. *Gazte hau, umetan, gorriak ikusia omen da.*
Zein da baliokidea?

a) Senideak komunistak omen zituen.
b) Txikitan odola galtzen omen zuen.
c) Haurra zelarik oso gaizki pasa omen zuen.
d) Zezenak baino indar gehiago omen zuen umetan.

88. *Bart arratsean bildu da epaimahaia. Handik 72 ordura emango du epaia. Noiz jakingo dugu irabazlearen izena?*

a) Herenegun.
b) Gaur eguerdian.
c) Etzi goizean.
d) Etzidamu.

89. *Nahiago nuke trenez etorri.*
Zein da baliokidea?

a) Niri dagokidanez hobe da trenez etortzea.
b) Niri gustatzen zaidanez hobe da trenez etortzea.
c) Niri dagokionez hobe da trenez etortzea.
d) Niri gertatzen zaidanez hobe da trenez etortzea.

90. ..... *berak erabaki du hori.*

a) Zuzendariak
b) Zuzendarik
c) Zuzendari
d) Zuzendaria

**Ariketa honetako azken hamar galderei erantzuten hasi baino lehen, irakurri arretaz ondoko testu hau. Testuan hamar hutsune dituzu (91tik 100era). Hutsune bakoitzerako, lau aukera dituzu. Markatu aukera egokia erantzun-orrian.**

## Donostia eta Baiona, hiri bakar bat

Europan badira hiriarte batzuk ofizialki onartuak: Lyon, Bartzelona, Bordele eta ...91... . Bordele baitugu hurbilena eta ezagunena, honetaz mintzatuko naiz.

600.000 bizilagun dituen hiriartetzat ...92... Bordele. Baina Bordeleko hiriak berak 210.000 bizilagun dauzka lerro-lerro, ...93... 600.000! Azken kopuru honetara heltzeko, Bordele inguruan dauden beste hiriak hartzen dituzte.

Etor ...94... orain nik aipatzen dudan hiriartera, Baiona-Donostia hiriarte berrira. Erran dudan ...95... , berria da: ez orain arte hor ez zelako, baizik eta orain arte ...96... zelako aipatua.

Baionaren eta Donostiaren artean ez da hausturarik. Hiri bakarra ...97... dena. Bordeleren kasuan bezala, udal bat baino gehiago bada; baina mapari ...98... badiozu, edo hegazkinetik hartutako argazki bati, hiri bakar bat ikusiko duzu, ...99... bat. Bordeleko hiriartean bezala, 600.000 lagun bizi dira hemen.

Kilometro asko da Donostiaren eta Baionaren ...100... . Halere, Los Angeles-en buru batetik bestera ere 80 bat kilometro badira.

*Iturria:* «ANTTON LAFONTi egindako elkarrizketa», HABE 220. zenb. 1992.eko azaroa. Egokitzapena

91. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) Tokio
b) zenbait
c) beste
d) horrela

92. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) daude
b) daukate
c) dabiltza
d) daramate

93. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) beraz
b) hor nonbait
c) agian
d) ez

94. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) ahala
b) gatozen
c) diezaiogun
d) gaitezen

95. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) heinean
b) bezala
c) aitzitik
d) gaitik

96. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) hortaz
b) ez
c) handikiro
d) han

97. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) ematen du
b) dago
c) dauka
d) da

98. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) erasaten
b) pairatzen
c) galdetzen
d) begiratzen

99. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) erakarmen
b) batasun
c) hitzarmen
d) ondasun

100. Aukera ezazu dagokion hitza.

a) ondoan
b) artean
c) aldean
d) alboan

# IRAKASLEENTZAKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE2**
**(edota HE1 eta HE2)**

## IDAZLAN-ATALA

1993ko urriaren 23a

***Azterketa-eredua: A***

## IRAKURRI OHAR HAUEK

1. Konprobatu azterketa honek 10 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Idatzi segidan zure datuak:

| *1. deitura:* ........................................................ | *2. deitura:* ........................................................ |
|---|---|
| *Izena:* ........................................................................................ | *NAN:* ☐☐☐☐☐☐☐☐ |

3. Gelatik irten beharra bazenu, arduradun bati adierazi.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Gelan ezin da erre.
6. Lan hau egiteko bi ordu t'erdi izango duzu.
7. Orri hauek ezin dituzu gelatik kanpora atera.
8. Ariketa GUZTIAK egin behar dituzu, HE2 lortu ahal izateko.

## 1. IRAKURRIAREN ULERMENA (HE2)

### Bizkai euskararen ekarria batasunera

Lerro hauek azken orduko burutazio-gogoetak baino ez dira: Jakin ...1... aspaldirik bere egitamuan zeukan asmoari sasoiz eta patxadaz erantzun ez ...2... , buruak eman ahala jalkiak. Ene aldetik erantzun hoberik merezi zukeen euskararen ...3... hamaikatxo ahalegin luze egiten diharduen aldizkari honek, baina —erru kitugarri edo ...4... zuritzeko esan dezadan— nire gainerako arazo eta ardura nahastetsuek ez didate ...5... gozatsurik eskaini neure egitekoa hobeto atontzeko.

Aurre-ohar bat eginez ...6... naiz, bizkaiera deitu ohi dugun horren izena dela eta. Euskaltzale bat baino ...7... bide dago, mendebaldeko euskalkiari bizkaiera deitzeari ondo ez deritzona, Bizkaiaz kanpoko zenbait ...8... ere horrela hitz egiten delako: Gipuzkoan Leintz-Debako harroetan batetik; eta Arabakoetan ere bai, ...9... . Deitura honi ipintzen zaizkion erreparoak gehienbat Gipuzkoako bizkaieradunen aldetik ohi datoz. ...10... ez dira eroso sentitzen euren ezpainetan darabilten berbakera bizkaiera dela ...11... behar dutenean, lurrez Gipuzkoako seme-alaba izanik. Baina ez da burua asko ...12... behar beste euskalkiekin ere arazo beretsuak ditugula ohartzeko; hau da, lurralde ...13... eta linguistikoaren hedadura bat ez datozela ikusteko. Horrela, gipuzkera Nafarroako Sakana ...14... sartzen da, era berean nafar hizkerak Gipuzkoako ekialdean, lapurtera Goi Nafarroako ...15... , behe-nafarrera ere ingurukoetan eta abar. *Bizkaiera* izena gogoko ez dutenek, mendebal ...16... edo antzeko zerbait proposatzen dute, *bizkaiera* hitz markatuegi hori saihesteko.

Ene ...17... , ordezkapen horrek gauzak konpondu baino nahastu gehiago egingo ote lituzkeen ...18... . Zeren mendebaldeko euskalkietan, tradizioz, gipuzkera ere sartzen baita, ekialdeko euskalkiekiko ...19... . Gauza ilundu, argitu baino gehiago, egingo luke horrek. Egia da, ...20... , *-era* amaieradun eratorriok euskalkiei aplikatzea (*gipuzkera, lapurtera, nafarrera, bizkaiera*) ez dela ...21... zaharra, *euskara* (edo *euskera*) eta *erdara* (edo *erdera* ) diren moduan, ...22... nolanahi ere zabalkunde handia lortu dute aldi modernoetan, eta euskal idazle eta ...23... artean guztiz arrunt bihurtu dira izenok. Eta era horretan, *dialecto vizcaíno* erdaraz ...24... *bizkaiera* euskaraz. Horrezaz gainera, zehaztasun eta erosotasun handia eskaintzen dute ...25... bera adierazteko. Dena den, badira beste izen batzuk sustrai zaharragoa dutenak, ...26... *bizkai euskera / giputz euskera* , edota espresio batzuetan *bizkaitarrez / kipuztarrez* hitz egin, etab. Mogel ...27... , Eibarren jaio, Deban urte batzuk eman eta ia bizialdi guztia ...28... hurreko Markinan igaro zuen gizona izanik, hitz zorrotzagoekin ebatzi zuen ...29... : hark *bizkaiko euskera* eta *kiputz euskera* hitzak zerabiltzan mendebal euskalki biak ...30... . Ez zuen asmatu, hala ere: euskara-mota bakoitza administrazio-lurraldearekin ...31... zuen. Baina hori lehenagotik zetorren bekatua zen. Bonaparteri itxaron beharko zitzaion, euskalkien bereizkuntza ...32... geografiko eta linguistiko zehatzen arabera egin eta eurotariko bakoitzaren ...33... finkatzeko. Zertzelada txiki batzuk gora-behera, hark emana da gaur egun ontzat ...34... dugun euskalki-lurraldea.

Nik, horretan gaurko usadio nagusiari dautsadala, *bizkaiera* eta *bizkai euskara* ...35... jarraituko dut, proposamen sendoagorik etorri bitartean, eta era berean *bizkaieradun* hitzaz izendatuko ditut berbetaz euskalki honetakoak diren euskal hiztunak.

*Iturria:* Jakin, 76.zkia, 1993. Adolfo Arejita. Egokitua

1. a) dakien
b) aldizkariak
c) zaleak
d) patxarak

2. a) ibiliagatik
b) etorriagatik
c) izanagatik
d) zuzenengatik

3. a) aldi
b) olde
c) inguru
d) alde

4. a) etxea
b) liburua
c) burua
d) jantzia

5. a) era
b) diru
c) zubi
d) lagun

6. a) ekingo
b) hasiko
c) burutuko
d) galdetuko

7. a) gehiago
b) gorago
c) lehenago
d) erdirago

8. a) menditan
b) Aldunditan
c) lurraldetan
d) mapatan

9. a) halere
b) etzi
c) jakina
d) buru-belarri

10. a) Iruñean
b) Gelan
c) Ontzian
d) Agian

11. a) aitortu
b) astindu
c) ulertu
d) iraindu

12. a) eragin
b) findu
c) nekatu
d) jaso

13. a) administratiboaren
b) klimatikoaren
c) turistikoaren
d) galduaren

14. a) berrian
b) aldean
c) uholdean
d) urrian

15. a) mendean
b) Parlamentuan
c) landaretzan
d) ertzean

16. a) isuria
b) euskalkia
c) odolkia
d) haizea

17. a) aburuz
b) buruz
c) izenburuz
d) helburuz

18. a) naiz
b) dut
c) dirudio
d) nago

19. a) zintzotasunean
b) osotasunean
c) harrotasunean
d) aurkakotasunean

20. a) kostalde
b) bestalde
c) herrialde
d) orainalde

21. a) itxaropen
b) euskalki
c) oso
d) aurkezpen

22. a) noski
b) jakinik
c) batipat
d) baina

23. a) kirolarien
b) sendalarien
c) hizkuntzalarien
d) arraunlarien

24. a) edota
b) beraz
c) ordea
d) noizpait

25. a) merkatua
b) kontzeptua
c) burutazioa
d) oroitzapena

26. a) hala nola
b) halaz ere
c) nola-hala
d) berehala

27. a) zenbait
b) batzuk
c) askok
d) batek

28. a) magaletik
b) mugatik
c) ibaitik
d) zintzurretik

29. a) zuzia
b) gezia
c) auzia
d) gazia

30. a) izendatzeko
b) garatzeko
c) debekatzeko
d) biziarazteko

31. a) dibertsifikatu
b) identifikatu
c) glorifikatu
d) kruzifikatu

32. a) gurdibide
b) irizpide
c) erdibide
d) lasterbide

33. a) erramua
b) ordenua
c) mantenua
d) eremua

34. a) txartzen
b) ekartzen
c) hartzen
d) irizten

35. a) erahiltzen
b) erabiltzen
c) erdoiltzen
d) hutsaltzen

## 2. IDAZLANA (HE2)

**Gaia: Zure ikastetxera gero eta ikasle gutxiago dator. Zergatikoak, honek sortzen dituen arazoak, adibideak emanaz. Irtenbide posibleak.**

— Kontestua: Irakaslea zara. Eskola Kontseilurako aukeratu berriak diren gurasoentzat txosten bat prestatu behar duzu.
— Egizu idazlan honetan erabiliko duzun eskema.
— Ondoren, 70 lerroko idazlana egin behar duzu.
— Bai laburpenean eta bai idazlanean, honako puntuok hartuko dira kontuan:
- gaiaren garapena (edukina, esaten dena)
- gramatika-zuzentasuna
- testu-moldaera:
  — testuaren plangintza, egituraketa.
  — kontestualizazioa: zein egoeratan idatzia denari (hartzaileari, medio edo igorbideari, tokiari, garaiari...) egokitua den ala ez.
  — testu-motari egokitua ala ez.
  — konexioa: juntagailuak, lokailuak, puntuazioa.
  — kohesioa: testuaren batasuna eta progresioa (formen jarraipena: aditz-aldienak, puntuazio-zeinuenak...).
  — koherentzia: mezuaren jarraipena.

### ESKEMA

..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................
..........................................................................................

## IDAZLANA

## IDAZLANA

## IDAZLANA

## 3. OHARRA IDAZTEA (HE1 eta HE2)

Eskolako bulegoan zaudelarik, telefono-dei bat jaso duzu. Une horretan bertan ez dagoen zuzendariaz galdetu dute. Egiozu zure zuzendari horri ohar bat, nork eta zertarako deitu dion esanez. Irakurri ondoko elkarrizketa, eta idatzi zure zuzendariari horren araberako oharra.

....... *Riiiiiiiing (telefono-hotsa)*

| | |
|---|---|
| **Irakaslea:** | *Bai, esan.* |
| **Ama:** | *Mikel Lasa irakaslearekin hitz egin nahi nuke.* |
| **Irakaslea:** | *Hara, ikasgelan dago.* |
| **Ama:** | *Enkargu bat emango al diozu?* |
| **Irakaslea:** | *Bai, noski. Zer da?* |
| **Ama:** | *Miren Buztinzulo naiz, eta kexu bat azaldu nahi dizut: senarraren eta bion ustez, semeari nota desegokia jarri dio matematikan Lasa irakasleak...* |
| **Irakaslea:** | *Adieraziko diot. Baina esan nahi nizuke, ikasleek gezurretan aritzen ere badakitela.* |
| **Ama:** | *Irakasle guztiok berdinak al zarete, ala? Dena den, kontua ez da hori bakarrik.* |
| **Irakaslea:** | *Zer bada?* |
| **Ama:** | *Kontua ez da kexu hutsean gelditukо.* |
| **Irakaslea:** | *Zeuk ikus!* |
| **Ama:** | *Bai, neuk ikusiko dut zer egin, baina irakasle horrek ere ikusi beharko du gogoko ez duenik.* |
| **Irakaslea:** | *Ondo da, adieraziko diot. Egunon.* |

### Idatzi oharra, ondoko lauki hau beteaz:

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

..................................................................................................

## 4. ESKABIDEA EGITEA (HE1 eta HE2)

Irakaslea zara. Hizkuntz eskakizunen azterketa egin ondoren, ez zara azaltzen gainditu dutenen zerrendan. Egin eskabide bat epaimahaiari, azterketa berrikus dezan eskatuz.

## 5. JENDAURREKO AZALPENA (HE1 eta HE2)

7. mailako tutorea zara. Osakidetzatik kanpaina baten berri etorri zaizu, adin honetako ikasleak hepatitisaren aurka txertatzeko gomendatuz. Honetarako, gurasoen onarpena ezinbestekoa da. Zure taldeko gurasoei eskutitz bat idatzi, kanpaina eta bere abantailak azalduz, erantzuna emateko epea adieraziz eta hartarako bideak argituz.

# II.2. ZENBAIT ARIKETAREN ALDAERAK*

## IRAKURRIAREN ULERMENA (HE2)

### Oihenarten garaia

Oihenart XVII. mendeko gizona izan zen. Hobeki esateko lehen bi herenetakoa, 1592an ...1... baitzen eta 1667an hil. Zuberoan jaio zen; eta, ezkondu ondotik (1627an) Nafarroa Beherean ...2... izan bazen ere, ez da dudarik haren moldakuntza Zuberoako ...3... egina izan zela. Eta garai hartako Zuberoa, zenbait etxetan bederen, aurreko ...4... erreformaren ondorioz alde batetik eta, beste aldetik, Nafarroako errege-erreginen ...5... biltzen ziren taldeen eraginez (itxura guztien arabera, tokiko familia batzuek ...6... loturak baitzituzten haietan), kultura eta hezkuntza kontuetan aski aitzinatua zen.

Pixka ...7... geroago (1661ean) gertatu zen Matalazen —Mithikileko erretorearen— jazarraldia gogoan ...8... , inork bestela uste izan dezakeen arren, XVII. mendearen hastapeneko Zuberoa ez zen ...9... hertsi, etsi, miserable horietarikoa. Ez osoan bederen. Hirietako merkatari-burgeseriak gizarte-...10... gorenetara igoteko aukerak zituen, ikasketen bidez legegizonen sailera pasatuz ...11... , eta hortik, ezkontzaren bidez, nobleen artekora. Famili estrategiak ere izaten ziren ...12... horietara heltzeko; hain zuzen ere, Oihenartarrek estrategia horren eredu garbia ...13... digute. Gure pertsonaiaren aitona Mauleko burges merkataria izana zen; aita, berriz, lege-...14... zuen; eta berak ere, bide horretatik abiatuz, kargu publikoak izan zituen ...15... gazterik, Heren Ordenako ordezkari bilakatuz Zuberoan (1623-1629). Azkenik, ezkondu ondoan Nafarroa Behereko ...16... sartu ahal izan zen.

---

* Azterketa-eredu desberdinak erabiltzen direnez gero, ariketa jakin batzuk ordezkatu egin dira eredu batetik bestera. Ondoko orrialdeetan biltzen dira horrelakoak.

Haren semeetarik bi elizgizon izan ziren. ...17... da, gizarte barneko mugikortasun hori ikasketen bidez obratzen zela oroz ...18... eta ahal zuenak bere haurrak ikasketa luzeak egitera bultzatzen zituela, bai ...19... artean (Oihenarten familia), bai *hugonote*en artean (Belatarren familia). Oihenart, ...20... , zuberotar *kapare* bat baizik ez zen: erdi mailakoa; ...21... , ez aitonen seme. Bizkitartean euskara, latina, gaztelania, italiera, gaskoina, frantsesa ...22... ongi menderatzen zituen, eta grekoaren gramatikan ere zertxobait baino gehiago zekien Lafitteren ...23... .

Giro orokor horretan ulertzekoak dira, ene ustez, Oihenarten bi ezaugarri nagusiok: ...24... -irekidura eta modernotasuna. Irekidura eta modernotasuna aipatu ditut, historiako gaietan ...25... izan zuen zorroztasuna eta baliatu zituen aztermolde zehatzak kontuan harturik ...26... . Ordea, haren obraren parte horretaz beste norbait ariko baita aldizkari honetan, ez dut ...27... hau hemen gehiago landuko. On da, halere, garai haiek Nanteseko ediktuaren ...28... zirela gogoratuz, Oihenarten irekidura hori tolerantziaz ere oratua zela ...29... , ez baitugu haren lanetan herrazko edo gorrotozko hitzik aurkitzen etsai izan zituen ...30... kontra, hala nola *hugonote*en aurka. Bestalde, *agot*-en egoera (orduko eta tokiko arrazakeriaren ...31... garbienetarik baitzen hura, dudarik batere gabe) aipatzen duelarik bere ...32... , ez da beldur jendeen artean haiei buruz zabalduenik zeuden aurreiritziak ...33... , eta jende horien egoera tristea zen bezala erakusteko: «Badiote, lepradunak direla eta ...34... egiten dutela, haien aurpegian eta egintzetan zerbait badela mesprezagarri eta ...35... egiten dituena, bai eta hats kiratsa dariela ere. Ez dut holakorik sinesten».

*Iturria: Jakin,* 74, 1993ko urtarril-otsailak. Beñat Oihartzabal. Egokitua.

1. a) sartu
   b) gertu
   c) sortu
   d) zahartu

2. a) bizi
   b) hazi
   c) hezi
   d) hasi

3. a) naharoan
   b) garoan
   c) giroan
   d) geroan

4. a) mandoko
   b) munduko
   c) mendekuzko
   d) mendeko

5. a) inguruan
   b) aingeruan
   c) ainguran
   d) altzairuan

6. a) hanka
   b) beren
   c) landare
   d) zeren

7. a) puxka
   b) asko
   c) bat
   d) txikia

8. a) usainik
   b) itzainik
   c) izanik
   d) irainik

9. a) bizibide
   b) zuzenbide
   c) gizarte
   d) gogarte

10. a) mahaia
    b) habaila
    c) garaia
    d) maila

11. a) orbainik
    b) lehenik
    c) dohanik
    d) bikainik

12. a) galburu
    b) artaburu
    c) mahaiburu
    d) helburu

13. a) eskaintzen
    b) eskatzen
    c) goraipatzen
    d) lurrintzen

14. a) gizon
    b) eragozle
    c) hausle
    d) hiztun

15. a) aske
    b) hozki
    c) aski
    d) hizki

16. a) dotorezian
    b) gabezian
    c) ahulezian
    d) noblezian

17. a) Azpijatekoa
b) Azpijokoa
c) Azpiegiturakoa
d) Azpimarratzekoa

18. a) azpitik
b) gainetik
c) aurretik
d) atzetik

19. a) mendikoen
b) katolikoen
c) zirilikoen
d) kaukasikoen

20. a) kotxez
b) eskuz
c) etxez
d) oinez

21. a) hats
b) hotz
c) hatz
d) hots

22. a) erraz
b) arras
c) orratz
d) harroz

23. a) helburuz
b) aburuz
c) buruz
d) iturburuz

24. a) begi
b) gogo
c) aho
d) esku

25. a) eragotzi
b) irakatsi
c) erakutsi
d) eraitsi

26. a) irazeki
b) astiroki
c) ozenki
d) bereziki

27. a) alderdi
b) belardi
c) aldarte
d) besarte

28. a) garondokoak
b) ondokoak
c) belarrondokoak
d) zokondokoak

29. a) oldartzea
b) gogortzea
c) gogoratzea
d) aldatzea

30. a) jendeen
b) mendeen
c) aginteen
d) euriteen

31. a) oharpen
b) mintzamen
c) adierazpen
d) sinesmen

32. a) lauburuan
b) liburuan
c) gailurrean
d) zintzurrean

33. a) salatzeko
b) zabartzeko
c) zakartzeko
d) zaletzeko

34. a) kutsatu
b) kexatu
c) erraustu
d) ezarri

35. a) hobesgarri
b) miresgarri
c) erdiragarri
d) higuingarri

## IDAZLANA (HE2)

**Gaia: Zein giza balore bultzatu nahi dira eskolan, eta zein gailentzen dira gizartean (adibidez, komunikabideetan)? Zer egin dezakegu irakasleok bata eta bestea elkarren kontra daudenean?**

Kontestua: Irakaslea zara. Gabonetako Jostailu Kanpaina dela eta, gelako gurasoentzat txosten bat prestatu behar duzu.

— Egizu idazlan honetan erabiliko duzun eskema.
— Ondoren, gutxienez 70 lerro dituen idazlana egin behar duzu.
— Bai laburpenean eta bai idazlanean, honako puntuok hartuko dira kontuan:
- gaiaren garapena (edukina, esaten dena)
- gramatika-zuzentasuna
- testu-moldaera:
  — testuaren plangintza, egituraketa.
  — kontestualizazioa: zein egoeratan idatzia denari (hartzaileari, medio edo igorbideari, tokiari, garaiari...) egokitua den ala ez.
  — testu-motari egokitua ala ez.
  — konexioa: juntagailuak, lokailuak, puntuazioa.
  — kohesioa: testuaren batasuna eta progresioa (formen jarraipena: aditzaldienak, puntuazio-zeinuenak...).
  — koherentzia: mezuaren jarraipena.

## OHARRA IDAZTEA (HE1 etaHE2)

Eskolako bulegoan zaudelarik, telefono-dei bat jaso duzu. Une horretan bertan ez dagoen zuzendariaz galdetu dute. Egiozu zure zuzendari horri ohar bat, nork eta zertarako deitu dion esanez. Irakurri ondoko elkarrizketa, eta idatzi zure zuzendariari horren araberako oharra.

....... *Riiiiiiiing (telefono-hotsa)*

***Irakaslea:*** *Bai, esan.*
***Ordezkaritza:*** *Zuzendaria jartzeko moduan al dago?*
***Irakaslea:*** *Ez. Ez da etorri.*
***Ordezkaritza:*** *Ba, lokaliza ezazu, eta...*
***Irakaslea:*** *Baina ez dakit non den.*
***Ordezkaritza:*** *Ba, presako arazoa da, eta nola-hala adierazpen hau egin behar diozu.*
***Irakaslea:*** *Saiatuko gara, baina ezin garantiza dezakegu laster egitea.*

| | |
|---|---|
| ***Ordezkaritza:*** | *Hizkuntz eskakizunen azterketarako epaimahai nagusiko kide izendatu dugu. Ahalik lasterren, epaimahai nagusiko buru den Aitor Belauntzarekin harremanetan jarri behar du.* |
| ***Irakaslea:*** | *Ez dakit zer den roilo hori guztia, baina esango diot. Besterik?* |
| ***Ordezkaritza:*** | *Ez. Kontuan izan: presako kontua da. Agur eta egunon.* |

## ESKABIDEA EGITEA (HE1 eta HE2)

Irakaslea zara, eta gelako tutorea. Zure gelako ikasleekin baserri-eskola batean oporraldia egiteko asmoa duzu. Egin eskabidea baserri-eskola horretako zuzendariari, horretarako bidebatez zure asmoen berri emanez: haurren zehaztasunak eta egonaldiaren helburuak eta asmoak.

## JENDAURREKO AZALPENA (HE1 eta HE2)

7. mailako tutorea zara. Zure Lurraldeko Foru Aldunditik, negu partean eskiatzera joateko kanpaina baten berri etorri zaizu, adin honetako ikasleei eskia lantzeko gomendatuz. Honetarako gurasoen onarpena ezinbestekoa da. Zure taldeko gurasoei eskutitz bat idatzi, kanpaina eta bere abantailak azalduz, erantzuna emateko epea zein den adieraziz eta hartarako bideak argituz.

# III. AHOZKO AZTERKETAK*

* Ondoko orrialdeetan ahozko azterketetan erabili diren zenbait material bildu da adibide gisa. Lehen eta bigarren deialdien artean metodologi diferentzia txiki batzuk izan zirenez gero, hemen bigarren deialdiko argibideak eta testuak ekarri dira, eredu finkatuagoa eskaintzen dutelakoan.

## III.1. HE1eko AHOZKO AZTERKETAK

HE1eko ahozko azterketak bi zati ditu:

**Albiste laburrak:** Lehen zatian bi albiste laburren artean bat aukeratu beharko du azterketariak. Gero 20 minutu izango ditu hura prestatzeko, eta 5 minutuan azaldu beharko du aztertzaileen aurrean.

**Azalpen librea:** Bigarren zatian gai bat aukeratu beharko du hiruren artean (eskola inguruko gaiak dira maiz) eta gai horren inguruan aztertzaileekin elkarrizketa izan 5 minututan. Zati honetan elkarrizketa sortu behar denez gero, ez da gaia prestatzeko denborarik izango.

## ALBISTE LABURRAK

Bi albiste labur eskaintzen dizkizugu, bakoitza bere gai bereziarekin. Nahi duzuna aukera dezakezu zure azalpenerako. Garatu ezazu zuk aukeratutako gaia. Lehendik duzun esperientzia, ezaguera eta iritzia erabil dezakezu horretarako.

### 1.-

**Asteburu honetarako iragarrita dagoen** eguraldia dela eta, kontuz gidatzeko gomendatu du Ertzaintzak. Besteak beste, bustita dauden errepideetan abiadura handian ez gidatzeko, autoen arteko distantzia egokia gordetzeko eta, autoren bat aurreratzekotan, argi eta garbi ikusten den tokietan baino ez egiteko esan du. Horrez gainera, autoan abian jarri orduko gurpilak eta kristal-garbigailuak ondo dauden ziurtatzeko gomendioa egin du.

abiadura: lastertasuna
gomendio: recomendación
abian jarri: martxan jarri

**Zeruan lau objetu distiratsu** ikusi zituztela esan dute Limako (Peru) hiritar batzuek, herenegun gauean hirian argirik gabe geratu ziren une batean. Argindar enpresak azaldu duenez, gehiegizko energiaren ondorioz geratu zen hiria argirik gabe ordu erdiz. Astronomoen iritziz, izar batzuen distira handiek sortu zuten ikuskizun «izugarri» hura.

distiratsu: brillante

### 2.-

**Zurrungarik ez egiteko laser-**ekipo berria asmatu du Israelgo enpresa aurreratu batek. Ekipo honen bidez, aho-sabaiko azala lasaitu egiten omen denez, lo egiteko orduan errazago har daiteke arnasa.

aho-sabaia: paladar
zurrunga egin: roncar

**Iruñeko kartzelako preso batek** koltxoiari su eman zion atzo goizaldean, abstinentzi sindromeak jota. Keak asaldatuta, sua itzaltzen saiatu zen eta bigarren mailako erredurak izan zituen eskuineko eskuan. Presoa, 36 urteko Jose Maria V. L. iruñarra, duela bi egun kartzelaratu zuten. Bi urte eta lau hilabeteko kartzela-zigorra bete beharko du, osasun publikoaren aurkako delitu bategatik.

asaldatu: urduri jarri
erredura: quemadura

3.-

**Dinosaurio-arraultzak** daude salgai Bilboko Erakustazokan, Iberdrola enpresak bultzatutako Mineral eta Fosilen Nazioarteko Erakusketan. Arraultzok, fosil bihurtuak noski, pareka eros daitezke 300.000 pezetaren truke (13.640 libera inguru). Hiru egun izango da zabalik erakusketa. Erakusketak 30.000 bisitari izan zituen iaz.

**Festen hasiera iragartzeko** kanoi-salbak bederatzi urteko haur bat hil zuen herenegun Tenerifeko Adeje herrian. Miguel Palenzuela da berau. Beste bi pertsonak ere zauriak izan zituzten. Doluminez, Adejeko herriak festak bertan behera uztea erabaki zuen atzo.

kanoi: cañón

4.-

**Errepidez bidaiatzea baino %45** seguruagoa izango da Eusko Trenbideen trenetan bidaiatzea 1996tik aurrera, konpainia honetako iturriek jakinarazi zutenez. Izan ere, 10.000 milioi pezetako inbertsioa egingo dute Eusko Trenbideek segurtasun-plan bat martxan jartzeko. Juan Antonio Uriarte ET-FVko kontseilari ordezkariaren hitzetan, «Europako konpainia aurreratuenen parekoa izango da gure trenetako segurtasuna».

**Altsasuko lanbide heziketako** Institutuaren auziari buruzko prentsa-oharra kaleratu du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak, eta euskararen eskaintza «oso zabala» dela dio, «legearen arabera eman behar dena baino franko handiagoa». Bertako ikasleak greba mugagabean daude ikasketak D ereduan egin ahal izateko, urtero izaten baitira arazoak.

franko: bastante

## AZALPEN LIBREA

1. Emakumearen presentzia irakaskuntzan
2. Haurrentzako telebista-saioak
3. Zein giza balore sustatzen dira eskolan?

----

1. Soldataren konjelazioak zer ondorio izan dezake irakaskuntzan?
2. Irakaskuntza formalaz kanpoko ekintzak
3. Kirolak: lehia eta hezkidetza

----

1. Gurasoen erantzukizuna eta betebeharra eskolan
2. Irakaslearen ezaugarriak eta eginkizunak
3. Haurrentzako telebista-saioak

-----

1. Irakaskuntza elebiduna
2. Irakaslegoaren profesionaltasuna
3. Kirolak: lehia eta hezkidetza

----

1. Irakaslegoaren profesionaltasuna
2. Irakaskuntza elebiduna
3. Emakumearen presentzia irakaskuntzan

## III.2. HE2ko AHOZKO AZTERKETAK

HE2ko azterketak bi zati ditu:

**Azalpen librea:** HE1ean ipintzen diren gai berberak edo antzekoak izan ohi dira eta beraz ez dira hemen adibideak errepikatuko. Nolanahi ere, azterketariari HE1ean baino gehiago eskatuko zaio. Gaia prestatu ondoren, bost minutu inguruko azalpen txukun bat egin beharko du.

**Testu baten ahozko laburpena:** Euskarazko aldizkari, liburu eta abarretatik hartutako artikulu eta testuren bat ematen zaio azterketariari, honek arretaz irakurri eta bost bat minutuko laburpena egin dezan.

Bi ariketak prestatzeko ordu erdi inguru izaten da.

**Bi ariketa egin behar dituzu:**

## 1. AZALPEN LIBREA

### Gai jakin bati buruz hitz egin

Ondoko hiru gaien artean bat aukera eta presta ezazu. Gero bost minutu izango dituzu gutxi gora-behera, zure ideiak aztertzaileei azaltzeko. Paper batean egin ezazu eskematxo bat, gero zure azalpenari lotura eta ideia-jarraipen argia eman ahal izateko. Mintzatzeko orduan ezin izango duzu testu jarraitu bat irakurri.

## 2. TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

### Emandako testu baten ahozko laburpena.

Irakur ezazu ondoko testua arretaz —apunte laburrak jasoaz, nahi baduzu—. Gero **bost bat minutu** izango dituzu haria aztertzaileei azaltzeko, testua berkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakegu, helburua **nondik-norako nagusiak** ematea baita. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko; testua bera zatika irakurtzea ere ez, testua han edo hemen lagungarri gisa erabiltzea zilegi bada ere.

**30 minutu izango dituzu guztia prestatzeko.**

## TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

# GORBEAKO PARKE NATURALA, BERTAKOENTZAT ETA KANPOKOENTZAT

Gorbeia, Gorbeie, Gorbeya, Gorbeye, Gorbea. Izen asko ditu Euskal Herriko mendi ezagunetariko honek. Tontorra 1.482 metrotara dago. Eta orain, agian aurten, Parke Natural bihurtuko dute Gorbea inguru hori, **guztira** 21.069 hektarea dira, Bizkaia eta Araban banatuak. Zelai, baso, baserri, zubi, ibai, aparkaleku, jatetxe, kobazulo, erle, behi... Denetik dago askorentzat bizibide eta guztiontzat **aisialeku** den paraje horretan. Baina Gorbeako ezaugarririk ezagunena gurutzea da, 18 metrokoa, 1906an jarria. Tontor hartako hirugarrena da. Beste biak haizeak bota zituen. Eta ez da zaila gurutzeraino iristea, nahikoa goraino doan pistarik ez **baita** falta. Eta horixe da Gorbea inguruak duen arazoetako bat, jende askok ez dakiela mendian oinez ibiltzen. Kotxea, "todoterrenoa" edo motorra hartu behar preziso. Eta **jokaera** horrek ez die batere onik egiten Gorbeatik bertatik bizimodua ateratzen dutenei, **ganaduzaleei** esaterako.

## Bisitari asko joaten diren lekuak zaindu nahi dituzte

Gorbea ezagutzen dutenak **ados daude.** Leku zoragarria da egun-pasarako, **mundiala** esango luke norbaitek. Baina joan ere **mundu bat** joaten da. Eta, besteak beste, joateko modua arautu egin nahi du Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak. **Baliabide** Naturalen Ordenazio Plana burutu du. Alegazioak aurkezteko azken hilabetea, **ekaina.** Alberto Sancho mendizale **sutsu** bat da, oso ondo ezagutzen du Gorbea alde hori. Ez da, ordea, edozein mendizale.

Itxina mendi-multzoaren azterketa bat **argitaratzekotan** da. Kotxeak Gorbearen behe aldean gera daitezela eskatzen du Alberto Sanchok. Ez du nahi, aitatutako Planak ez baitu eragozten, kotxeak eta Villarotik Pagomakurreraino joan daitezen, edo Barazarretik Saltroporaino edo Murgiatik Bayas ibairaino. Lehen **begiratu** batean ikusten da ibai hau zikin dagoela, xaboi-aparrez eta **trastez** betea... Gainera, Pagomakurren abereak daude, eta ardiak ere ez dabiltza urruti. Egiriñaoko **hariztia** ere **nahikoa hondatuta** dago. Beraz, Nekazaritza Sailaren asmoa da **bisitari** asko joaten diren lekuak zaintzea eta egun dauden beste bide batzuen erabilera **sustatzea.** Esate baterako, Zubiaurretik Kolometarakoa edo Maltzarragatik Kolometarakoa, baita Olabarratik Arrugaetan barrena Untzuetaraino

iristen dena ere, edo, Markina pasatuz, Sarriatik Muruara doana, eta abar. Mendi-gidarien beharra ere **aurrikusten** du Planak. Eta ingurugiroari kalterik egingo ez dioten kirolak ere onartuko direla. Kirola aitatu dugunez, kezka handia sortzen dute kirolarako edota denborapasarako motorrak eta "todoterreneoak" gidatzen dituztenek. Sekulakoa da ateratzen duten zarata, eta hautsez betetzen dituzte bide-bazterrak. Gorbean lan egiten dutenek erabiltzea konforme, baina hortik aurrera kontu gutxi!

## Hiritik datorrena eta Gorbean bizi dena

EHNE sindikatuko Helen Groome-k ere aitatu dizkigu mendiko gidariak. Izan ere, H. Groomenentzat "gorbeatarren" bizimodua da **lehentasuna** duena, eta iruditzen zaio gaur egun parkeak hiritarrentzat egiten ari direla batipat: "Lehendabizi hiriko jendea **hartzen da aintzat,** gero **ingurugiroa** eta gero, baina askoz geroago, bertako bizilagunak. Eta argi ikusi da bai Urdaibain, bai Urkiolan, eta baita Gorbean ere —eta Planak ere aitortzen du hori— baserritarren lana ezinbestekoa izan dela eta dela Parkeak babesteko". Baserritar eta ganaduzaleen bizimodua hobetzeko **irudimena** ezinbestekoa dela dio EHNEko partaide honek. Horregatik mendiko gidarien kontu hori: "Bisitarientzako baserri-sare bat osatu. Adibidez, bat Zeanurin, bestea Artean, bestea Orozkon eta bestea Arrraban. Eta ibilaldiak egin mendiz, bertako jendea gidari hartuta, eta baserritarrek dirua jasoko lukete **ohearen truke.** Eta baserritarren jeneroa ere indartu egin behar da, promozionatu. Adibidez, beste leku batzuetan, Urkiolan, baserritarrek jarri nahi izan dituzte denda txikiak, baina oraindik ez dute jaso ez baimenik ez erantzunik administrazioaren aldetik. Agian, ez da beharrezkoa izango Gorbeako jeneroarentzat Label bat sortzea, baina **antzeko zerbait,** eta propaganda ona egin bisitarien artean, eta baita ere Gasteizen, Zeanurin...". A. Sanchok **dioen bezala** "Gorbeako

bizilagunen begietara bisitariak bezero bihurtzen direnean, denek onartuko dute —egun ez bezala— Gorbea Parke Natural izatea". Mendizale honen ustez gertatzen da batez ere hiriko jendeak nahi dituela Parke Naturalak, eta hori ordaindu egin behar dela dio; eta nork ordaindu behar du? Ba Parkea nahi duenak. **Bidezko dirudi,** ezta? Bestalde, A. Sanchok uste du Gorbeatik bizimodua ateratzen dutenek, **nolabait** esateko, **kaskoan** jarri zaiena egin dutela askotan, eta behar-beharrezkoa dela naturgune horien erabilera arautzea. Eta hor datoz komeriak!

## Pinua eta haritza

Ingurugiroarentzat askoz ere hobe da paraje batean era askotako arbolak izatea. Baina dirua, oraindik ere, pinuak ematen du. Edo beste era batera esanda, azkar hazten den arbolak dakar **irabazia.** Artean badago ganaduzale eta nekazarien kooperatiba bat, eta bertako lehendakari-ordeak, Avelino Altubek, adierazi digunez, basojabe gehienak ez omen daude Parkea egitearen alde: "Esaten dute ezingo dituztela arbolak landatu, edo bota". Dena den, Nekazaritza Saileko Luis Javier Telleriak esana du, ez dutela ezer egingo **lur-sail** batean jabearen baimenik gabe, eta norbaitek bere basoaren erabilera aldatzeagatik diru gutxiago irabazten badu, diru-laguntzak izango dituela. **Iritziak iritzi,** egia da basozainek oso zorrotz kritikatu dutela Plana. Besteak beste, Gorbeako Parkeak hektarea gutxiago izan ditzala eskatu dute, aurrikusita dauden administrazioaren diru-laguntzak handitzea, edo, beren basotik ezin badute etekinik atera, adibidez, geldi-geldi hazten diren **arbolak** —haritzak edo pago amerikarra— **aldatu** dituztelako, beste baso batzuetan, nahiz eta Gorbeatik kanpo izan, lan egiteko aukera izatea eta abar. Ekolojistak, esaterako, beldur dira, parketik kanpo, baina parkearen mugan gelditzen diren lur-sailekin espekulazioa etorriko dela.

HABE 227, 1993ko ekaina

# IV. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK*

* Ondoko orrialdeetan biltzen dira hizkuntz eskakizunen azterketak kalifikatzeko erabili diren irizpide-txostenak. Txosten hauek aztertzaile guztien esku izan dira, zuzenketa bateratua ziurtatzeko asmoz.

# IV.1. HE1eko IDATZIRAKO NEURPIDEAK

## 1. Irizpide nagusiak.

1.1. Idatzi guztiak globalki kalifikatuko dira.

1.2. Erreferentziak:

— Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (ikus IV. kapitulua)
— Herri Administrazioko 2. hizkuntz eskakizuna
— HABEko 8. urratsa

1.3. Hizkera arrunta (ez-teknikoa) zuzen erabiliko du azterketariak; ez zaio eskatuko hizkera jasoa, teknikoa, erabiltzea; bai, ordea, adierazi nahi duena, irakurleari trabarik sortu gabe, adierazteko gai izatea.

## 2. Irizpide zehatzagoak.

2.1. Komunikagaitasuna.

Ekoizten dituen testuak lehenbiziko begiratuan gertatuko dira ulergarri. Horrek ez du esan nahi, besterik gabe, akasñoak izango ez dituenik, baina horiek ez dute ulerkuntza oztopatuko. Oso esaldi luze eta korapilatuak ezin eskatuko zaizkio, halere.

Testuok ulergarriak eta koherenteak izango dira, era logikoz ordenatuak, zuzentasun dezentekoak, lexiko-egokitasun nahikokoak eta, lokailuetan, aberastasun mugatukoak. Orobat, era sinplez antolatutako testuak izango dira eta mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografiko, morfosintaktiko eta lexikoak erakusten dituztenak.

2.2. Testu diskurtsiboa.

Ez da onartuko ez telegrama ez eta eskema modukorik. Testua egitea eskatuko zaio.

2.3. Gramatika-zuzentasuna.

Gramatikaren erregelak ezagutzea eskatuko zaio, nahiz eta era mugatuan izan. Helburu komunikatibo gehienak betetzeko gaitasuna behar du; nahiz eta formulazio eta errekurtso aldetik aberastasun handiegirik ez izan.

2.4. Emandako gaia garatzea, eskatu zaion neurrian garatu ere.

**3. Irizpideen aplikazioa.**

3.1. Hizkera «arrunta» versus «teknikoa».

Hizkera arrunta ongi darabil, ez ordea teknikoa. Hain zuzen ere, HE1 eta HE2 hizkuntz eskakizunen arteko bereizketetako bat hauxe da: HE1 duenak ez duela euskaraz ez klaserik ematen, ez euskara irakasten; HE2 duenak, berriz, bai.

3.2. Erregistroak nahastu egiten ditu. Ez da zorrotzegi hartuko nahaste hori.

Adibidez: Gipuzkoan hizkera arruntean «igorri» erabiltzea; emakumeari gizonezkoen hikako flexioa aplikatzea: **Hori duk eta, neska!*

3.3. Emandako gaiarekiko atxikimendua.

Hurbiletik atxiki behar zaio emandako gaiari, puntarik punta ibili gabe. Atxikimendu handiago ala txikiagoa neurtuko da, beraz.

3.4. Gaia garatu, eskatutako luzera emanez.

Luzera guztia ematera iristen ez bada, kalitatearen aldetik huts hori konpentsatzen duen ikusi.

Halere, gutxieneko luzera eskatu beharra dago.

3.5. Ortografia.

Gutxieneko zuzentasun-maila bat eskatuko da alor honetan:

a) Hitzak bereizten dituela erakutsi beharko du.
b) Bere testua irakurri behar dugunok ortografiagatik irakurtzeko oztoporik ez izateko modukoa izan behar du.
c) Maiz erabiltzen diren hitzek zuzen idatzirik egon behar dute.

Idazkera batuaren arau nagusiak ezagutu behar ditu. Beraz, ezin onar daitezke >mp<, >mb<, >v<, >ll<,... grafema okerrak.

3.6. Puntuazio-markak.

Gutxieneko bat eskatuko zaio. Komunikazioa oztopatzeko ez den modukoa.

3.7. Deklinabidea.

Ondo dominatu behar du:

— bizidun/bizigabeak bereiziz.
— bokal/kontsonantezko bukaerak bereiziz.
— -a itsatsidunak.
— izen berezi/arruntak.
— erakusleak.

3.8. Lexikoa

Mailegutza onartu egingo da; halere, maileguei euskal forma ematea eta ondo deklinatzea edo jokatzea eskatuko da. Adibidez: *«gomendio»* ordez *«rekomendazio»*, *«gurdi»* ordez *«karro»*, *«postari»* ordez *«kartero»*, e. a. Jakina, euskaraz hitz arrunt-arruntak direnetan ez da onartuko honelakorik.

3.9. Morfosintaxia

a) Sintagma mugagabeak.

— zenbait gizonen.
— emakume askoren.

b) Komunztadura okerrak: **Ikasleak nekatutak daude.*

Hala ere, akats solte batzuk barkagarri izango dira.

3.10. Aditza.

Kontuan hartuko diren puntuak, besteak beste, honako hauek dira:

— Aspektu-forma zuzenak eskatuko dira: **Irakaslea noiz etortzen da? («etorriko da»* partez).

— Aditz-komunztadurak, oro har, zuzena izan behar du: **Ipuinak idaztea gustatzen zaizkit.*

— Tempus-a. Orainaldia, iragana (indikatiboan); agintera; baldintza hipotetikoa. Orainaldiko indikatiboa bakarrik ereabiltzearekin ez da aski izango.

— Denborakidetasuna: **Etorriko balitz, ohera joango da.*

— *«Izango zen»* versus *«izango litzateke»*.

Honelakoetan, horrelako okerren bait inoiz edo behin agertzea barkagarri izan daiteke. Ez, ordea, behin eta berriro.

3.11. Sintaxia.

Menpeko perpaus-modu arruntenak ondo ezagutu behar ditu:

- Konpletiboak: -(e)la
- Zehargalderak: **Ez dakit zer egingo du.*
- Erlatiboa/konpletiboa: **Ikusi dut programa bat, dela oso ona.*
- Oro har subordinazio-markak.

— Lokera: **Da hiri handi bat.*
  • *Ere bai ematen du geologia*

— Galdegaia: oso nabarmen diren akats-kasuak kontuan hartu.

— Sintagma:
- *ekonomiko egoera.*
- *gizon beste bat*
- *gure Gasteizko laguna.*

## 4. Baremazioa.

4.1. Lau parametrook hartuko dira kontuan:

— luzera
— gaiarekiko atxikimendua
— gramatika-zuzentasuna
— komunikagaitasuna (kohesioa, koherentzia,...)

4.2. Parametro bakoitzari hiru kalifikazio aplikatuko zaizkio:

— **nahikoa**
— **gutxi**
— **oso gutxi**

4.3. Nota globala.

4.3.1. Nota globala zer den:

Arazoa ez da:

— parametro bat bakarra aztertzea eta kalifikatzea;
— akatsak kuantifikatzea.

Arazoa hauxe da:

— akatsak ezezik, alde onak neurtzea; adibidez, gerta liteke akats gramatikal batzuk izatea baina, denbora berean, bere mailarako komunikagaitasun egokia izatea (jariotasuna, jatortasuna, berezkotasuna, errekurtso-ugaritasuna...). Kasu horretan konpentsazio-printzipioa ere kontuan hartu behar da; jakina, beti ere parametro guztietan gutxieneko maila bat lortuz gero.

— bestalde, parametro guztiak (luzera, gaiarekiko atxikimendua, gramatika-zuzentasuna, komunikagaitasuna) hartu behar dira kontuan;

— gainera: akats larri bat (adib., ergatiboa) sistematikoki ez dominatzea, ez gainditzeko arrazoia da;

— akats bakan diferente asko izatea ere, ez gainditzeko arrazoia da.

4.3.2. Honela kalkulatuko da nota globala:

a) Alde batetik, idazlan guztiak hartuko dira kontuan.

b) Bestetik:
— lau parametroetatik batean «oso gutxi» badu, ez du gaindituko azterketa.
— bi «gutxi» baditu ere ez.

# IV.2. HE2ko IDATZIRAKO NEURPIDEAK

## 1. Irizpide nagusiak.

1.1. Idatzi guztiak globalki kalifikatuko dira (ikus atzeko koadroa).

1.2. Erreferentziak.

— Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (ikus VI. kapitulua)
— EGA
— Administrazioko 3. hizkuntz eskakizuna.

1.3. Euskara jaso eta aberatsagoa zuzen erabiltzen jakin behar du. Berezko hitzetorri jator, ugaria agertu behar du, hitzez zein idatziz. HE1eko hizkera arruntaz gain, irakasleari dagokion hizkera teknikoa (kontuan hartu teknikotasun horrek bakoitzaren espezialitatekoa beharko lukeela izan; banakako berezitasun pertsonalizatua ebaluatu ezin dugunez, erdimailako teknikotasunarekin konformatu beharko; izan ere, kimikoaren eta filologoaren teknikotasunak ez dira gauza bera, adibidez).

1.4. Emandako gaia garatzea, eskatu zaion neurrian garatu ere.

## 2. Irizpide zehatzagoak.

2.1. Bere lanbideak eskatzen diona era egokian idazteko gai izan behar du.

— Komunikagaitasuna: pedagogikoki azaltzeko gai; era logikoan, behar den zehaztasunez, argi ...
— Erregistro egokia: situazioak edo egoerak bereizteko gaitasuna duelarik (adibidez, ez da berdin idazten 10 urteko eta 15 urtekoarentzat).

2.2. Gramatika-zuzentasuna.

— Akats gramatikal gutxi izatea.
— Akats gutxi izateaz gain, jatortasuna. Kontuan izan horretarako, besteak beste,
  - esamoldeak
  - adizkera egokia
  - aditz-nominalizazioa

2.3. Lexikoa.

— Oro har, lexiko arrunta dominatu behar du; baita bere lanbideko terminologia ere.

## 3. Irizpideen aplikazioa.

3.1. Hizkera «arrunta» versus «teknikoa».

Biak bereizteko gai, eta egoera diferenteetan bata ala bestea erabiltzeko gai izatea. Adibidez:

— Klasean teknikoagoa.
— Klasetik kanpoko ekintzetan arruntagoa: eskutitzak, oharrak

3.2. Emandako gaiari atxiki.

Hurbiletik atxiki behar zaio emandako gaiari; puntarik punta ibili gabe, gaia borobildu egin behar du:

— Sarrera (gaia lekutu edo situatu).
— Gorputza: argumentua dislokatu baina berriro lotzeko (bi, hiru, lau... puntutan ardaztu).
— Konklusioa (laburbildu, sintesia eman...).

3.3. Gaia garatu, eskatutako luzera emanez:

Luzera guztia ematera iristen ez bada, kalitatearen aldetik huts hori konpentsatzen duen ikusi.

Halere, gutxieneko luzera eskatu beharra dago.

### 3.4. Ortografia.

Oro har, erabat zuzena eskatuko da. Halere, bereizi:

— Euskaltzaindiak araututakoak: bete beharrekoak dira horiek.
— Euskaltzaindiak gomendatutakoak: hobestekoak, baina ez ezinbestekoak.
— Idazleen consensus-aren araberakoak: oro har jarraitzekoak.
— Euskalkiak/batasuna: batasunekoak zorrotzegi aplikatu gabe; HE2an HE1ean baino gehiago batasunaren alde.

### 3.5. Puntuazio-markak.

Gutxieneko bat eskatuko da. Komunikagaitasuna ez oztopatzeko modukoa.

Hemen ere, akatsak akats, alde onik ere ba ote daukan kontuan hartu beharko. Batzuetan oker jokatu badu ere, ontzat eman daiteke baldin eta beste batzuetan egoki egin badu.

### 3.6. Deklinabidea.

Oso ondo dominatu behar du:

— bizidun/bizigabeak bereiziz.
— bokal/kontsonantezko bukaerak bereiziz
— a itsatsidunak bereiziz.
— izen berezi/arruntak bereiziz.
— erakusleak e.a.
— sintagma mugagabeak.
  - *zenbait gizonen*
  - *emakume askoren*
  - e.a.

### 3.7. Lexikoa.

— Lexiko arrunta eta bere lanbideari dagokion teknikoa dominatu egin behar ditu. Baita hezkuntza alorreko mailegu, hitz eratorri eta elkartuen arazoa ere.

### 3.8. Aditza.

— Flexio zuzenak, pluralgileak, aspektua...
— Subjuntiboera/nominalizazioa (nominalizazioa egoki erabiltzea «sarigarritzat» emango litzateke).

— Denborakidetasuna: **Etorriko balitz, ohera joango da. *Eta hirugarrena, eta garrantzitsuena, estatuek subiranotasun nazionala galduko* **luketela** *eta Alemaniaren menpe egongo* **direla** *da.*
— *«izango zen»* versus *«izango litzateke»*.
— Komunztadura: **Irakasleak bihar liburuak banatuko die ikasleei.*

3.9. Joskera

— konpletiboak: -(e)la.
— zehargalderak: **Ez dakit noiz etorriko da.*
— erlatibo/konpletiboa: **Ikusi dut gizona, Paristik etorri dela («dena»* ordez).
— orohar: subordinazio-markak.
— lokera: **Da hiri handi bat.*
— galdegaia.
— sintagma: **Ekonomiko gertaera; *Gizon beste bat; *Laugarren Bizkaiko Bertsolari Gazteen Txapelketa, *Beste moduan...*
— oro har, erdal interferentzia nabarmenak: **Bihar ikusiko gara, *Oraindik aurrera, *Beste egunean...*

## 4. Baremazioa.

4.1. Lau parametrook hartuko dira kontuan:

— luzera.
— gaiarekiko atxikimendua.
— gramatika-zuzentasuna.
— komunikagaitasuna (kohesioa, koherentzia...)

4.2. Parametro bakoitzari hiru kalifikazio aplikatuko zaizkio:

— **nahikoa.**
— **gutxi.**
— **oso gutxi.**

### 4.3. Nota globala.

4.3.1. Nota globala zer den.

Arazoa ez da:

— parametro bat bakarrik aztertzea eta kalifikatzea;
— akatsak kuantifikatzea.

Arazoa hauxe da:

— akatsak ezezik, alde onak ere neurtzea; adibidez, gerta liteke akats gramatikal batzuk izatea, baina, denbora berean, komunikagaitasun handia izatea (jariotasuna, jatortasuna, berezkotasuna, errekurtso-ugaritasuna...); kasu horretan konpentsazio-printzipioa ere kontuan hartu behar da; jakina, beti ere, parametro guztietan gutxieneko bat lortuz gero.
— bestalde, parametro guztiak hartu behar dira kontuan;
— gainera:
 - akats larri bat (adib., ergatiboa) sistematikoki ez dominatzea, ez gainditzeko arrazoia da;
 - akats bakan diferente asko izatea ere, ez gainditzeko arrazoia da.

4.3.2. Honela kalkulatuko da nota globala.

Ondoko koadroak adierazten du HE2ren idatzizko zatia nola osaturik dagoen, parte batzuetan zer puntuazio-sorta eraturik dagoen eta kalifikatzeko orduan nola jokatzea komeni den:

IDATZIAREN NEURPIDEA

| | |
|---|---|
| AAG: Aukera Anitzeko Galdekizuna (HE1, HE2) | galderen %65 |
| IU: Irakurriaren Ulermena (HE2) | Nahikoa (23-35)<br>Gutxi (15-22)<br>Oso Gutxi (0-14) |
| HE1 Idatzia : Oharra, Eskabidea, Azalpena (globalizatuz) | Nahikoa<br>Gutxi<br>Oso Gutxi |
| HE2 Idatzia: Idazlana | Nahikoa<br>Gutxi<br>Oso Gutxi |

Beraz, HE2ren idatzizko zatia gainditzeko baldintza hauek bete behar ditu azterketariak:

a) AAG gainditua izan behar du.
b) Ezin du IUn edo HE1eko Idatzian «oso gutxi» atera.
c) HE2ko Idatzian «nahikoa» atera **behar** du.
d) Ezin du IUn eta HE1eko Idatzian (bietan alegia) «gutxi» atera.

# IV.3. HE1eko AHOZKORAKO NEURPIDEAK

## 1. Orientabideak:

1.1. Azterketariak **komunikaziorako** dituen hizkuntz trebetasunak neurtzeko, gai desberdinetako **elkarrizketak edo ariketak** proposatuko dira.

1.2. Aztertzaileei honako hau gomendatzen zaie:

— Aztergaiari heldu baino lehen, azterketaria lasaitzea; galdera xume-xumeak egiten hastea komeni da honetarako. Adibidez, lasaitzeko gidoia:
- *Non egiten duzu lan?*
- *Euskararekiko currilucuma*
- *Zein ikasketa egin dituzu, eta zein gaitara aurkezten zara oraingo oposizioetan?*
- *Zer-nolako itxaropenak dituzu oposizioak gainditzeko?*
- Eta abar...

— Aztertzailea bera erabat zurrun, poste baten moduan, ez egotea. Azterketaria hitzik gabe gelditzen denean, nondik atera ez dakiela alegia, jarraitzen laguntzea, sujerentziak eginez.

— Azterketa egitean, aztertzaile batek izan behar du «protagonista»; besteak apunteak hartuko ditu ahalik diskretoen. Arrazoia, azterketariarekiko errespetua da: hau da, ahalik urduritasun gutxien sortzeko bideak bilatzea.
- Mintzagai-aldaketa era naturalean egitea.
- Hiztegia argitzeko oztoporik ez jartzea.

## 2. Prozedura

— Elkarrizketak berak **10 minutuko** iraupena izango du. Beste 5 minutu izango ditu epaimahaiak, gainerako zereginetarako: oharrak berrikusi, emaitzak bateratu, nota jarri....

— Elkarrizketok bideratzeko, egingo zaizkien **galderak orientagarriak** izango dira. Beraz, aztertzaileak aldatu edo gehitu ahal izango ditu galdera horiek, hala behar izanez gero.

— Bi motibo desberdin proposatuko dira elkarrizketarako: **albiste laburrak** batetik, eta **eskolako gai libreak** bestetik.

— Albiste labur horiek han-hemengo testu idatzietan oinarrituta daude. Azalpen librerako, bestalde, eskolako hiru gai eskainiko zaizkio azterketariari, berak bat aukera dezan.

— Lehenengo ariketa: albiste laburrak. Azterketari bat proba egitera sartzean beste bat prestatzen jarriko da. Albiste laburren ariketa prestatu behar du hurrengo horrek 20 minutuan. Bi albiste labur emango zaizkio, nahi duena aukera dezan. Epea amaitutakoan, aukeratu duen gaiaren azalpena egin beharko du. Isilik gelditzen denerako, aztertzaileak eskura izango ditu galdera batzuk. Jakina, berak ere asma ditzake beste galdera batzuk edo sujerentziak.

— Bigarren ariketa: eskolako gai baten azalpen librea. Azterketariak hiru gairen artean aukeratuko du, baina prestatzeko aukerarik ez da emango. Kontua, elkarrizketa sortzea eta mantentzea da. Horretarako aztertzaileak gaiaren inguruko galdera batzuk izango ditu eskura.

— Albiste laburren azalpenak 5 minutuko iraupena izango du.

— Gai-azalpen libreak beste 5 minutuko iraupena izango du.

## 3. Neurketarako parametroak

Bateratze-saio praktikorako zintak entzun ondoren, HE1en ahozko azterketa hiru parametro hauen gain eratzea erabaki da: komunikagaitasuna, jarioa eta zuzentasuna.

3.1. Komunikagaitasuna.

— esfortzu handiegirik gabe esaten duena ulertzea;
— automatismoa, esan nahi duena adierazteko;
— galderen aurrean nola erreakzionatzen duen: errekurtsorik ba ote duen.

3.2. Jarioa/abiadura

— erraztasuna
— berezkotasuna
— diskurtso eten-hautsia ez izatea.

3.3. Zuzentasuna

— auto-zuzenketarik?

— akats mardulak:
- ergatiboa;
- zehar-galdera;
- konpletibo-erlatiboen nahastea;
- komunztadura;
- galdegaia: *«da ikastetxe bat oso ona»*.

— akats barkagarriagoak:
- *«aldakorrak zeudenak»*
- *«aukera genuen»* (*«elegimos»* esateko)
- *«faltatzen zitzaiela»*
- neurketa-sintagma mugagabeak: *«zenbat metro karratua»?*

3.4. Oharra: irizpideok osatzeko ikus, besteak beste, idatzizko HE1 azterketak kalifikatzeko neurpideen txostena.

## 4. Baremazioa

4.1. Parametro bakoitzeko kalifikazioa **nahikoa** edo **gutxi** izango da.

4.2. Parametro guztietan **nahikoa** atera beharko da ahozko HE1 azterketa gainditzeko.

# IV.4. HE2ko AHOZKORAKO NEURPIDEAK

## 1. Orientabideak

1.1. Erreferentziak: martxoaren 9ko 47/1993 dekretua; irakasleentzako bigarren hizkuntz eskakizuna EGAren eta Administrazioko HE3ren parekoa da.

1.2. Sarrerako gomendioak: aztertzaileei honako hau gomendatzen zaie:

— Aztergaiari heldu baino lehen, azterketaria lasaitzea; galdera xume-xumeak egiten hastea komeni da honetarako. Adibidez, lasaitzeko gidoia:
- *Non egiten duzu lan?*
- *Euskararekiko curriculuma*
- *Zein ikasketa egin dituzu, eta zein gaitara aurkezten zara oraingo oposizioetan?*
- *Zer-nolako itxaropenak dituzu oposizioak gainditzeko?*
- *Eta abar...*

— Aztertzailea bera erabat zurrun, poste baten moduan, ez egotea.

— Azterketaria hitzik gabe gelditzen denean, nondik atera ez dakiela alegia, jarraitzen laguntzea, sujerentziak eginez.

— Azterketa egitean, aztertzaile batek izan behar du «protagonista»; besteak apunteak hartuko ditu ahalik diskretoen. Arrazoia, azterketariarekiko errespetua da: hau da, ahalik urduritasun gutxien sortzeko bideak bilatzea.

— Mintzagai-aldaketa era naturalean egitea.

— Hiztegia argitzeko oztoporik ez jartzea .

## 2. Prozedura

2.1. Ariketak berak 10 minutuko iraupena izango du . Beste 5 minutu izango ditu epaimahaiak, gainerako zereginetarako: oharrak ikusi, emaitzak bateratu, nota jarri, ...

2.2. Bi ariketa desberdin proposatuko dira: **ahozko laburpena** batetik, eta **gai-azalpen librea** bestetik.

2.3. Ahozko laburpen horiek han-hemengo testu idatzietan oinarrituta daude. Ahozko laburpenerako testu bakarra emango zaio azterketariari. Bestalde, azalpen librerako hiru gai eskainiko zaizkio aukeran: berak hautatu beharko du horietariko bat.

2.4. Probaren bi zatiak (ahozko laburpena, gai-azalpen librea) aldez aurretik eskuratuko zaizkio azterketari bakoitzari, bata zein bestea prestatzeko astia izan dezan. Bere azterketa hasi baino 30 minutu lehenago emango zaizkio horiek.

Epamahai bakoitza saia bedi, ahozko laburpenerako testua azterketari bati baino gehiagori ez pasatzen. Proba amaitutakoan, bestalde, testua eta eskema-orria jasotzea komeni da. Gai-azalpen librerako banatutako papera ere jaso egin beharko du epaimahaiak, aldian-aldian.

2.5. Ahozko laburpenak bost minutu iraungo du.

2.6. Gai-azalpen libreak beste 5 minutuko iraupena izango du.

## 3. Parametroak

Bateratze-saio praktikorako zintak entzun ondoren, lau parametroren gain eratzea erabaki da HE2 azterketaren neurketa: komunikagaitasuna, zuzentasuna, jarioa eta abiadura, eta aberastasuna. Parametro hauei buruz ondoren emango diren zehaztasunez gainera ikus txosten honen amaierako eranskina eta idatzizko HE2 azterketa kalifikatzeko emandako irizpideen txostena.

3.1. Komunikagaitasuna

a) gaiarekiko lotura, garapena eta ideien jarraipena kontuan izan.
b) zehaztasunez eta normaltasunez komunikatzeko gai izan behar du azterketariak.
c) etenik eta hausturarik gabe egin behar du diskurtsoa.

3.2. Zuzentasuna:

a) Gramatikazko zuzentasuna: ikus txostenaren amaierako eranskinean, d) pasartean, gai honetaz esaten dena.
b) ahoskera eta doinuera mailako zuzentasuna: ez dira ontzat emango, adibidez, **Santurtxi, *Zuzendaritxa, *Komunikazioia, *Esperiencia* moduko ahoskerak. Erdal doinuera nabarmenak ere gaitzestekoak dira.

3.3. Jarioa eta abiadura

Hitz-etorri erraza, azaldu nahi edo behar duena azaltzeko erraztasuna, kontuan hartu behar da.

3.4. Aberastasuna

Bai lexiko eta bai joskera aldetik neurtu behar da aberastasun hori. Horrekin batera gauzak esateko egokitasuna eta naturaltasuna ere aintzakotzat hartuko dira.

## 4. Baremazioa

4.1. Parametro bakoitzean, kalifikazioa **nahikoa** edo **gutxi** izango da.

4.2. Parametro guztietan **nahikoa** atera beharko da ahozko HE2 azterketa gainditzeko.

## Eraskina

Aurreko pasarteetan esandakoaren osagarri, ondorengo puntuok kontuan hartzea proposatzen dugu HE2 mailako mintzamena neurtzeko:

a) Gaiarekiko lotura, garapena, ideia-jarraipena eta iraupena:

« ... arrazonamendu, azalpen, deskribapen edo narrazio luzeak zailtasun handirik gabe egin ditzake, unean-unean gaiaz dituen iritziak eta ikuspuntuak azalduz eta defendatuz» (IBIBA).

— **laburpenean** eman zaion testuaren azalpena era ordenatuan eman beharko du, aurrez egindako gidoi edo eskema garatuz, informazioa eta argumentuen aurkezpena ordena logikoan emanez eta ideia jarraipenak inolako oztoporik sortu gabe.

— **gai-azalpen librean**, laburpenaz esandakoez gain, eskatzen zaion denbora (5 min) betetzeko gai izan behar du, berehala gaia agortu eta mututu barik eta aztertzaileen galderen zain egon gabe.

b) Jarioa eta abiadura:

«Hizkera jariakor eta uniformea: ez jatorrizko euskaldunarena adinakoa, baina ezta hau aspertzeko modukoa ere» (IBIBA).

« ... hiztun guztiek ez dute hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. (...) Euskaldunberriek abiadura gutxiagoz hitz egitea harritzekoa ez bada ere, entzuteak eta haria jarraitzeak ez lukete aztertzailearentzat sufrimendua izan behar. Beraz, abiadura minimo bat ere bada, zein den esatea oso zaila gertatzen bada ere.« (EGA)

c) Aberastasuna, egokitasuna eta naturaltasuna:

«Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Bere arloko gaietan lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du, baina nolabaiteko muga ere badu. Noizbehinkako gabezia-egoera horietan, euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko bideez baliatzeko estrategiak garatuak ditu.« (IBIBA)

Esaldi konplexuak, subordinazio-erak eta euskaldun jator batek tarteka erabiltzen dituen esapideak erabiliko ditu.

d) Zuzentasuna:

«Zuzentasun handiz hitz egiten du, noizik behin mezuaren ulerkuntza eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak soma badaitezke ere. Haietariko gutxi batzuk sistematikoak izan daitezke, baina gehienetan bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du hizkuntzaren funtzionamendua». (IBIBA)

«Bereziki kontuan hartu behar diren zenbait hutsegite:

1. **Ergatiboaren -k-**rekin larri ibiltzea.
   Noizbehinkako erratuak barka daitezke gai honetan; baina, behin eta berriro hutseginez gero, aski izango da besterik gabe **gutxiegi** emateko.
2. **Aditzaren komunztadura:**
   Noizbehinkako akatsa barkagarri izan daiteke baina behin eta berriro egiten badu **gutxiegi** emango zaio.
3. **Aditzak gaizki erabiltzea:**
   nor/nork eta nor/nori/nork flexioen nahasketak eta laguntzaile trantsitibo/intrantsitibo nahasketak behin baino gehiagotan eginez gero, eta denbora-aspektuak behin eta berriz nahastuz gero, **gutxiegi** emateko arrazoi izango da.
4. **-na** eta **-la** arteko nahasketa behin baino gehiagotan eginez gero, **gutxiegi** jasoko du.

5. **-ela** eta **-en** subordinazio-markak ahaztea.

6. **Ba** eta **-en** hizkien arteko nahastea: *«Ez dakit etorriko bada»*.

7. **Elkar, bere burua** e.a. nola erabiltzen dituen ere kontuan hartuko da.

Orohar, behin huts bat eta gero beste bat, desberdina, eta geroxeago beste bat... etengabe horrela badabil, huts bakoitza sistematikoa ez izan arren, aski izango da **gutxiegi** jartzeko.« (EGA)

e) Eskatzen zaiona benetan betetzen duen begiratuko da. Irakasle batek gelan darabilen formalizazio- eta abstrakzio-mailari eutsiko dio normaltasunez. Horretarako ikus, oraindaino esandakoaz gain, HE2ko azterketa idatziak kalifikatzeko neurpide-txostena.

# V. ERANTZUNAK

# V.1. LEHEN DEIALDIKO ERANTZUNAK

## AUKERA ANITZEKO GALDERAK (AAG)

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1-) c | 26-) c | 51-) d | 76-) c |
| 2-) a | 27-) a | 52-) c | 77-) d |
| 3-) d | 28-) d | 53-) b | 78-) a |
| 4-) d | 29-) a | 54-) a | 79-) c |
| 5-) d | 30-) c | 55-) b | 80-) c |
| 6-) b | 31-) a | 56-) c | 81-) d |
| 7-) d | 32-) a | 57-) a | 82-) c |
| 8-) a | 33-) c | 58-) a | 83-) a |
| 9-) b | 34-) d | 59-) c | 84-) c |
| 10-) a | 35-) c | 60-) d | 85-) a |
| 11-) d | 36-) a | 61-) b | 86-) b |
| 12-) b | 37-) d | 62-) d | 87-) a |
| 13-) a | 38-) b | 63-) a | 88-) b |
| 14-) d | 39-) d | 64-) a | 89-) a |
| 15-) d | 40-) b | 65-) a | 90-) a |
| 16-) d | 41-) b | 66-) b | 91-) d |
| 17-) b | 42-) c | 67-) a | 92-) a |
| 18-) c | 43-) a | 68-) a | 93-) b |
| 19-) c | 44-) d | 69-) b | 94-) d |
| 20-) c | 45-) d | 70-) d | 95-) c |
| 21-) d | 46-) b | 71-) c | 96-) b |
| 22-) a | 47-) d | 72-) b | 97-) a |
| 23-) c | 48-) d | 73-) c | 98-) d |
| 24-) a | 49-) d | 74-) d | 99-) b |
| 25-) d | 50-) b | 75-) b | 100-) b |

## IRAKURRIARAREN ULERMENA

### ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

1.- b) gazteek
2.- c) diskriminatzeko
3.- a) esaten
4.- b) iritzi
5.- d) ere
6.- c) bizkor
7.- a) bezala
8.- d) garela
9.- a) eztabaida
10.- b) zahartze
11.- d) kutsadurari
12.- c) hori
13.- b) beren
14.- c) duten
15.- a) errudun
16.- b) gehiegi
17.- c) gertaera
18.- b) beherako
19.- d) goialdearen
20.- a) konbinazioak
21.- d) populazioa
22.- a) erabat
23.- b) barruan
24.- c) zahartua
25.- d) da
26.- d) esanik
27.- b) falta
28.- a) populazioa
29.- a) sortzen
30.- c) horretarako
31.- c) aurkitzen
32.- d) izatekotan
33.- a) haurrak
34.- d) publikoek
35.- b) eraginez

### INOR BA AL DAGO

1.- a) bada
2.- d) gizakiak
3.- a) guztietakoak
4.- c) aldarrikatzen
5.- a) egokiak
6.- b) planetaz
7.- a) nonnahi
8.- b) bidez
9.- a) lurraren
10.- c) zibilizazio
11.- a) erabiliko
12.- b) sakontzeko
13.- d) gomendioa
14.- c) sartzea
15.- a) elkarrizketan
16.- b) garatuago
17.- d) dute
18.- b) hipotetiko
19.- a) beste
20.- d) azkeneraino
21.- c) jarrerok
22.- a) agertzen
23.- b) izango
24.- d) bederen
25.- a) kontrako
26.- c) bilatzen
27.- b) posible
28.- a) komenigarria
29.- d) adostasunik
30.- a) genukeela
31.- c) egotea
32.- b) komunikatu
33.- d) zibilizatuen
34. -a) gaituzte
35.- c) jakitun batek

# V.2. BIGARREN DEIALDIKO ERANTZUNAK

## AUKERA ANITZEKO GALDERAK (AAG)

1-) b
2-) a
3-) c
4-) a
5-) b
6-) a
7-) c
8-) b
9-) a
10-) b
11-) b
12-) b
13-) d
14-) c
15-) d
16-) c
17-) d
18-) d
19-) b
20-) d
21-) b
22-) c
23-) c
24-) b
25-) c
26-) c
27-) c
28-) a
29-) a
30-) c
31-) a
32-) c
33-) b
34-) a
35-) a
36-) b
37-) c
38-) a
39-) c
40-) b
41-) c
42-) c
43-) c
44-) a
45-) c
46-) a
47-) a
48-) c
49-) c
50-) a
51-) a
52-) d
53-) d
54-) d
55-) b
56-) d
57-) d
58-) a
59-) c
60-) c
61-) c
62-) b
63-) c
64-) a
65-) b
66-) c
67-) b
68-) c
69-) b
70-) d
71-) c
72-) d
73-) c
74-) d
75-) d
76-) c
77-) a
78-) c
79-) d
80-) d
81-) c
82-) a
83-) c
84-) a
85- ) c
86-) a
87-) c
88-) d
89-) a
90-) a
91-) c
92-) b
93-) d
94-) d
95-) b
96-) b
97-) d
98-) d
99-) b
100-) b

## IRAKURRIAREN ULERMENA

### BIZKAI EUSKARAREN EKARRIA BATASUNERA

1.- b) aldizkariak
2.- c) izanagatik
3.- d) alde
4.- c) burua
5.- a) era
6.- b) hasiko
7.- a) gehiago
8.- c) lurraldetan
9.- c) jakina
10.- d) Agian
11.- a) aitortu
12.- c) nekatu
13.- a) administratiboaren
14.- b) aldean
15.- d) ertzean
16.- b) euskalkia
17.- a) aburuz
18.- d) nago
19.- d) aurkakotasunean
20.- b) bestalde
21.- c) oso
22.- d) baina
23.- c) hizkuntzalarien
24.- a) edota
25.- b) kontzeptua
26.- a) hala nola
27.- d) batek
28.- b) mugatik
29.- c) auzia
30.- a) izendatzeko
31.- b) identifikatu
32.- b) irizpide
33.- d) eremua
34.- c) hartzen
35.- b) erabiltzen

### OIHENARTEN GARDIA

1.- c) sortu
2.- a) bizi
3.- c) giroan
4.- d) mendeko
5.- a) inguruan
6.- b) beren
7.- c) bat
8.- c) izanik
9.- c) gizarte
10.- d) maila
11.- b) lehenik
12.- d) helburu
13.- a) eskaintzen
14.- a) gizon
15.- c) aski
16.- d) noblezian
17.- d) Azpimarratzekoa
18.- b) gainetik
19.- b) katolikoen
20.- c) etxez
21.- d) hots
22.- b) arras
23.- b) aburuz
24.- b) gogo
25.- c) erakutsi
26.- d) bereziki
27.- a) alderdi
28.- b) ondokoak
29.- c) gogoratzea
30.- a) jendeen
31.- c) adierazpen
32.- b) liburuan
33.- a) salatzeko
34.- a) kutsatu
35.- d) higuingarri

# VI. ERASKINA

# LEGE-OINARRIA

## Martxoaren 9ko 47/1993 DEKRETUA, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena. (1993ko apirilaren 2ko EHAAn argitara emana)

2710 EHAA - 1993ko apirilak 2, ostirala N.º 63 ZK. B.O.P.V. - viernes 2 de abril de 1993

II. ATALBURUA.– HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

*2. atala.*– Lanpostua lortzeko eta bertako lana betzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntza trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

*3. atala.*– Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntza eskakizunak bi dira: 1 hizkuntza eskakizuna eta 2 hizkuntza eskakizuna.

1 hizkuntza eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da. 2 hizkuntza eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da.

*4. atala.*– 1HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

– ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza ihardunerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;

– ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: familiako arazo, adiskidetasuna, nortasuna, zein bere heldutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;

– gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta teknikoa ez izan, honako gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaietaz aritzeko.

*5. atala.*– 2HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

– 1HE-rako zehaztutakoa euskaraz egiteko;

– bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei, bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpena majistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta

CAPITULO II.– PERFILES LINGÜISTICOS

*Artículo 2.*– El Perfil Lingüístico de los puestos de trabajo docentes está determinado por los niveles de competencia en euskera necesarios para la provisión y el desempeño del puesto de trabajo.

En la determinación del Perfil Lingüístico se incluirán aquellas destrezas lingüísticas de carácter genérico (comprensión o expresión oral y escrita) así como aquellas otras directamente relacionadas con la práctica docente que garanticen el cumplimiento de los objetivos expresados en los artículos 4 y 5.

*Artículo 3.*– Los Perfiles Lingüísticos de aplicación a los puestos de trabajo docentes son dos: Perfil Lingüístico 1 y Perfil Lingüístico 2.

El Perfil Lingüístico 1 se aplicará a los puestos de trabajo docentes que sean ocupados por docentes que no impartan enseñanzas de euskera ni en euskera, garantizando la competencia lingüística que se necesita para utilizar el euskera como lengua de relación. El Perfil Lingüístico 2 se aplicará a los puestos de trabajo docentes que sean ocupados por docentes que impartan enseñanza de euskera o en euskera, garantizando la competencia lingüística que se necesita para utilizar el euskera tanto como lengua de relación como de enseñanza.

*Artículo 4.*– El perfil PL1 garantizará que el docente correspondiente sea capaz, entre otras cosas, de:

– Comunicarse en euskera con los alumnos individualmente o en grupo sobre temas relacionados con la actividad docente: comportamiento, motivación, rendimiento académico, problemas con otros alumnos y profesores, ambiente familiar de estudio, entre otros.

– Comunicarse en euskera con los alumnos individualmente o en grupo sobre temas relacionados con la problemática e intereses propios de su edad: problemas familiares, de amistad, personalidad, así como cualquier otra cuestión relevante en su proceso de madurez.

– Comunicarse en euskera con los padres, profesores y personal de la Administración Educativa, en un lenguaje correcto aunque no técnico, sobre el funcionamiento de la escuela, los objetivos, la línea pedagógica, el programa del curso, la opinión sobre el curso en general y los alumnos en particular, actividades escolares y extraescolares, criterios de evaluación, resultados obtenidos, y en general, sobre temas relacionados con la labor pedagógica y el funcionamiento del centro.

*Artículo 5.*– El perfil PL2 garantizará que el docente correspondiente sea capaz, entre otras cosas, de:

– Realizar en euskera lo especificado para el PL1.

– Impartir en euskera la enseñanza de su asignatura o área a los alumnos, bien individualmente, bien en grupo, a través de la exposición magistral, de la discu-

jasotako galderei erantzunez;

– eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;

– irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitekeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak);

– programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;

– eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;

– ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.

sión en clase y de la respuesta a las preguntas formuladas.

– Comprender en euskera las publicaciones, programas oficiales, libros de texto, libros de consulta, artículos, entre otros, relacionados con su materia que pudieran ser de utilidad en la preparación de las clases o como lectura para sus alumnos.

– Comprender en euskera el material oral (películas, vídeos, cintas, programas de radio, entre otros) relacionado con su asignatura que pudiera ser de utilidad en la preparación de las clases.

– Escribir en euskera un programa general y la programación del área correspondiente.

– Escribir en euskera las fichas, apuntes, materiales, ejercicios, pruebas de evaluación, entre otros, necesarias para la impartición de las clases.

– Realizar en euskera la corrección de los ejercicios, elaboración de informes y demás actividades relacionadas con la valoración del trabajo de los alumnos.

## EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

## 1. GLOTODIDAKTIKA LANAK

a) *Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

— HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. N. Gardner (1).
— HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. J.A. Mujika (2).
— HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. I. Olaziregi (3).
— HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
— HIZKUNTZ JOLASAK. M. Sainz - I. Olaziregi (15).
— BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (18).
— BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (22).
— BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. J.A. Letamendia (29).
— TREBATZEN. OHOko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. M. Sainz (23).
— EUSKALKIZ EUSKALKI. R.M. Pagola (19).
— EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. J.M. Etxebarria. J.A. Mujika (31).
— OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. I. Olaziregi (34).

b) *Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika*

— HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. I.M. de Lezea - Kukubiltxo (6)
— HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. I.M. de Lezea (9).
— ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. I.M. de Lezea (14)
— IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. L. Iriondo (10).
— KONTU KONTARI. L. Iriondo (20).
— AMONAREN IPUINAK. E. Genua (12).
— IPUIN GEHIAGO. A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada (13).
— JOLASEAN. I. Urbieta (11).
— MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. I. Urbieta (21).

c) *Gaitasun-agiriak*

— EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
— EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA. (7).

— EGA. 1990-91-92KO AZTERKETAK (40).
— IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK. 1993KO AZTERKETAK (41).

d) *Hizkuntz testak eta ebaluazioak*

— EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurrerako). G. Ajuria I. Ibarra - J. Sierra (16).
— GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHOko 2. mailarako). I Olaziregi J. Sierra (26).
— GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako OHOko 5. mailarako). I Olaziregi J. Sierra (25).
— GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testak OHOko 2. eta 5. mailetarako). J. Sierra - I. Olaziregi (27).
— ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A ereduko OHOko 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (28).
— PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako). I. Olaziregi - J. Sierra. (30).
— EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez). J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra (HUIS - HPIN).
— EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) J. Sierra - I. Olaziregi (33).
— EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) J. Sierra - I. Olaziregi (36).
— EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena (OHOko 8. mailarako). I. Olaziregi - J. Sierra (37).
— HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. (euskaraz eta gaztelaniaz) J. Sierra - I. Olaziregi (38).
— PRUEBAS DE LENGUA. Comprensión lectora y expresión escrita (8° de EGB). J. Sierra - I. Olaziregi (39).

## 2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

— BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte (1).
— EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. J.M. Irazola (2).
— BIZKAIERAZKO JOSKERA. A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte (4).
— HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. I. Artola - J.M. Berasategi - G. Nazabal - I. Olaziregi (3).
— HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA. I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide (5).

## 3. ZABALKUNDE LANAK

a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

— IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1992. M. Zalbide e.a.(32).
— IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1992. M. Usabiaga e.a. (33).
— EIMA. EKINTZA-PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986. R. Berriozabal - M. Zalbide (14).
— EIMA. LAGUNTZA-DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85. R. Berriozabal - M. Zalbide (10).
— HEZKUNTZA SOFTWAREAREN BILDUMA 1993. M. Usabiaga e.a.(35).

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*

— IRALE. 1992-93ko AURKEZPEN-TXOSTENA (29).

c) *Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)*

— IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. I. Artola -J.M. Berasategi- I. Muruaga (16).
— EUSKAL GIROTZE EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. R.M. Ardanza - I. Artola J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga (16).
— ESKOLA-ANTZERKIA Askoren artean (18).
— URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMAK 1986tik 1993ra.
— GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
— EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).
— ESKOLA HIZTUN BILA. B. Basterretxea e.a.(28).
— ESKOLA ANTZERKIA 2. Askoren artean (30).
— ESKOLA ANTZERKIA 3. Askoren artean (31).
— EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK. Askoren artean (34).

d) *Bestelakoak*

— EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN (20).
— EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE. M. Zalbide e.a. (24).
— 10 AÑOS DE ENSEÑANZA BILINGUE. M. Zalbide e.a. (24).
— EUSKAL IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA. (txostena) (25).

---

Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.

Irakasleen hizkuntz eskakizunak
EK15020245

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 750 PTA.